TOLOSAKO UDALA

2021IPLE0005

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

30265f1338e3fe8ef6c86991940d0aaf1ec09ed898281ad03bdf139d233bef3d

Lotura honetan dago: https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak

# TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO MAIATZAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

## 2021.05.27

Tolosako Udaletxean, 2021eko maiatzaren hogeita zazpian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

**Alkate-lehendakaria:**
Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

**Parte hartu duten zinegotziak:**
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU)
Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)
Jose Mª Villanueva Telleria (PSE-EE)

**Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez

**Jarduneko kontuhartzailea:**
Paulino Alonso Eraso

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

## Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
   2021eko apirilaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Hasierako onarpena ematea ordenantza honi: Tolosako Udalean etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza.
3. Behin betiko onartzea aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia.
4. 2021. Urteko lanpostu zerrenda behin betiko izaeraz onartzea eta hasierako izaeraz aldatzea
5. Onartzea 2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
6. Hasierako onarpena: 2021eko dirulaguntzen eranskina aldatzea: 1-2021.
7. Hasierako onarpena: 4/2021 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
8. Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriei hasierako onarpena ematea.
9. Behin betiko onespena ematea “24. Iurre esparruko “24.1Iurramendi pasealekua” azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari
10. "24.1 Iurramendi pasealekua" hirigintza azpiesparruari buruzko hitzarmena azkendutzat ematea.
11. 2020ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.
12. Tolosako Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen erregelamendua behin betiko onartu izanaren berri ematea.
13. Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko erregelamendua behin betiko onartu izanaren berri ematea.
14. Amnistia Internacionalaren mozioa, udal taldeek aurkeztua, mundu osoan covid 19-aren aurkako txertoak lortzeko.

**Gai zerrendatik kanpo eta gaiaren premiatasuna onartu ondoren:**

15. Mozioa: “Tolosaldeko ospitale publikoa” (EHBILDU).
16. Mozioa: “Ospitale publikoaren aldeko konpromisoa” (EAJ-PNV eta PSE-PSOE)
17. Galderak eta eskaerak.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. **AKTA HAU ONARTZEA:**
   **2021EKO APIRILAREN 29KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA ORDENANTZA HONI: TOLOSAKO UDALEAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

**Antolakuntza Batzordearen 2021eko maiatzaren 19ko irizpena.**

**AURREKARIAK:**

Tolosako Udalak egokitzat jotzen du udalerrian etxebizitzen alokairurako dirulaguntzak ematea arautuko duen Ordenantza adostea.

Proposatzen den ordenantzaren azken helburua da Tolosan alokairu-erregimeneko etxebizitza bat lortzen laguntzea, eta gazteei eta egoera ahulean dauden beste kolektibo batzuei alokairuko merkatu librean sartzen laguntzea.

Garrantzitsua da adieraztea Tolosako Udalak etxebizitza-parke publiko zabala duela, barne hartzen dituena araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak, 70 urtetik gorako pertsonentzako babes ofizialeko etxebizitzak eta 35 urtetik beherako gazteentzako zuzkidura-bizitokiak.

Era berean, beharrezkoa da adieraztea 2019an Udalak azterlan bat eskatu zuela, hutsik zeuden etxebizitzen egoerari eta Tolosako biztanleen etxebizitza-premiei buruzko diagnostiko bat egiteko, helburu izanik etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko udal-jardunbideak zehaztea.

Bertan jaso dute etxebizitza libre hutsak eskuratzen jarraitu behar dela, alokairu babestuko erregimenean eskaintzeko, eta jaso dute, era berean, sustatu behar dela gazteek eta egoera ahulean dauden beste kolektibo batzuek alokairuko merkatu librean sartzeko aukera.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**GAIAREN AZTERKETA:**
**I.** Etxebizitza Zerbitzuko teknikariak honako arrazoi hauetan oinarritu du bere proposamena:

Dirulaguntzen ekimen honen bidez, alokairu librea sustatu nahi da eta, horretarako, Tolosako herrian etxebizitza alokatzeko laguntzak arautuko dituzten oinarriak adostu nahi dira.

Laguntza hauen helburua da ohiko bizilekurako etxebizitzaren errenta zati batean ordaintzen laguntzea kolektibo hauei: alokairu-erregimeneko etxebizitza duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteei, banandutako pertsonei, dibortziatuei, amaitutako izatezko bikoteei eta guraso bakarreko familiei.

Halaber, komenigarritzat jotzen da laguntza horien onuradunak udalerrian bizi diren eta erroldatuta dauden pertsonak edo bizikidetza-unitateak izatea.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da laguntzak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eskaintzen dituen beste laguntza batzuk diru-sarrerak direla-eta jaso ezin dituzten bizikidetza-unitateei zuzenduak izatea.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Azken Xedapenetako Laugarrenak xedatuaren babesean onartzen da, bere gain hartuz, udalei aitortzen zaizkien eskumenen esparruan, alokairuko etxebizitzen eskaintza sustatzeko politikak bultzatzeko konpromisoa, bereziki zuzendurik etxebizitza eskuratzeko arazoak dituzten gizatalde jakin batzuei.

Aintzat izan da, era berean, Euskadiko Toki Erakundeetako apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 17. artikuluko 36. atala, zeinak udalen berariazko eskuduntzat ezartzen baitu gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea .

Horrela bada, Tolosako Udalean etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza onartzeko espediente abiarazi zen 2021ko urtarrilaren 11n (2021IORD0003)

Bat etorrita urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133. artikuluaren 1. paragrafoan ezarritakoarekin, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publikoa bideratu da eta iragarkia jende aurrean erakutsi da 2021eko martxoaren 12tik 31ra bitartean administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta ekarpenak egiteko epean iradokizun bat jaso da erregistro telematiko bidez (sarrera erregistroa: 2021/3448, martxoaren 26koa), non eskatzen den laguntza jaso ahal izatea *Tolosan kokatutako etxebizitza baten alokairu-kontratua indarrean izanik, bertan erroldatuta ez dagoen eskatzaileak, adingabeen zaintza partekatuaren erregimena dela eta.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

2021eko maiatzaren 11n egindako txostenean, Etxebizitza teknikariak, aurretiazko galdeketa publikoaren izapidean aurkeztutako iradokizuna ez onartzea proposatu du:

"*Proposatzen den Ordenantza honen helburua da etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea –partzialki– ohiko bizilekurako alokairu-erregimeneko etxebizitza errentan hartuta daukaten honako biztanle-talde hauei: 18 eta 35 urte bitarteko gazteei, banandu edo dibortziatuei, desagertutako izatezko bikoteei eta guraso bakarreko familiei.*

*Kontuan hartu behar da baliabideak mugatuak direla, eta, horregatik, laguntza horien onuradun diren bizikidetza-unitateek benetako bizilekua Tolosan izatea nahi izan dela. Horretarako, onuradunek egiaztatu beharko dute Tolosan erroldatuta daudela, gutxienez 3 urteko antzinatasun etengabearekin eskabidea aurkezteko unean, edo udalerrian 5 urtez etengabe erroldatuta egon direla beste une batean".*

## II. AZTERKETA JURIDIKOA

### 1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Tokiko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, bere 25.2.a apartatuan honako hau adierazten du:

"2.- Udalerriak eskumen propio gisa jardungo du beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, honako gai hauetan:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez, arlo honetan neurriak ezartzen ditu. Besteak beste, 17.1 7 apartatuak: "**Udalerrien eskumen propioak:** 1-Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: 7) Etxebizitza plangintza, programazioa eta kudeaketa."
Era berean, 14. apartatuak: "Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea".
Azkenik, 36. apartatuak: "Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea".

### 2-Oinarrien izaera eta tratamendu juridikoa-

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluak erregelamenduak (eta beraz, kasu honetan oinarriak) egiteko eta bere burua antolatzeko ahalak esleitzen dizkie udalerriei, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik eta beren eskumenen esparruan.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. tituluan, legegintza-ekimenari eta erregelamenduak emateko ahalari buruzkoan, arauketa berri bat arautzen du, eta administrazioek legegintza-ekimenaren eta erregelamenduak egiteko ahalaren egikaritza hartara egokitu beharko dute. Hala, 129. artikuluan ezartzen du administrazioek printzipio hauen arabera jardungo dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.
Lege horren 133. artikuluak, xedapen orokorretan herritarren prozesu parte-hartzailea arautzen du eta derrigorrezkotzat jotzen du hasierako jendaurreko prozesu hori.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Aurretiazko galdeketa hori egin da eta iradokizuna jaso ere bai, kontuan hartu ez dena. Halaxe dio Etxebizitzetako teknikariak 2021eko maiatzaren11n egindako txostenean.

**3.- Udalaren sustapen-neurriak eta dirulaguntzak**

**-Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren** 24. eta hurrengo artikuluek udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, eta horien barruan dirulaguntzak emateko ahalmena onartzen zaie. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
2. Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.

Herri Administrazioen dirulaguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikuluak, dirulaguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartzearen beharra xedatzen du. Aipatu artikuluaren 3. atalak, oinarrien publizitatea arautzen du, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

***3.*** *La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, como mínimo, los siguientes extremos:*

***a)*** *Definición del objeto de la subvención.*

***b)*** *Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta ley, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*
***c)*** *Condiciones de solvencia y eficacia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta ley.*
***d)*** *Procedimiento de concesión de la subvención.*
***e)*** *Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.*
***f)*** *Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.*
***g)*** *Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.*
***h)*** *Determinación, en su caso, de los libros y registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.*
***i)*** *Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario o de la entidad colaboradora, en su caso, del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.*
***j)*** *Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.*
***k)*** *Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar los beneficiarios.*
***l)*** *Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

***m)*** *Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.*
***n)*** *Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.*

**-Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorraren arabera:**

"Artículo 2. Concepto de subvención.

1. Se entiende por subvención, a los efectos de esta ley, toda disposición dineraria realizada por cualesquiera de los sujetos contemplados en el artículo 3 de esta ley, a favor de personas públicas o privadas, y que cumpla los siguientes requisitos:

a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.

b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública."

**-1955ko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. artikuluaren arabera:**

"Se considerara subvención cualquier auxilio directo o indirecto, valorable económicamente, a expensas de las Entidades locales, que otorguen las Corporaciones, y, entre ellos, las becas, primas, premios y demás gastos de ayuda personal."

**Aurreko izaeraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren beharra**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzak erregulatzen dituenak, honela dio bere 8.1.artikuluan:

  "Artículo 8. Principios generales.

  1. Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

2. Cuando los objetivos que se pretenden conseguir afecten al mercado, su orientación debe dirigirse a corregir fallos claramente identificados y sus efectos deben ser mínimamente distorsionadores.

3. La gestión de las subvenciones a que se refiere esta ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.

b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.

c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos."

Zentzu honetan, Udalbatzak 2020-2022 urteetarako Tolosako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen. Dirulaguntza lerro hau 2020ko abenduaren 18ko Batzarrean txertatu zen Plan horretan.

- **Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikulua**:

Laguntza emateko prozedura elkarrekiko **lehiarik gabekoa** izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

Aipatutako Errege Dekretuak, hauxe dio bere 55. artikuluan:

"Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura izango da, baina, aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren oinarri arautzaileek ez dute bete beharko aurkeztutako eskabideen artean lehentasun-ordena bat ezartzeko betekizuna, baldin eta deialdian ezarritako kreditua nahikoa bada, eta aurkezteko epea amaitu ondoren eskabideen kopurua kontuan hartuta".

Beraz, ez gaude norgehiagoka-prozedura baten aurrean, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdun guztiak izango baitira deitutako dirulaguntzen onuradunak, kontuan hartuta deialdirako dagoen kreditua nahikoa dela eskabide guztiei erantzuteko.

Kontutan hartu behar da dirulaguntza mota hauetan ez dela zehazten zer balorazio-irizpide bete behar diren aurkeztutako eskabideen artean lehentasuna ezartzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluak oro har eskatzen duen bezala.

Beraz, alderdi hori zuzendu egin beharko litzateke zioen azalpenean .

**4.-Oinarrien izapidetzea:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

artikuluan xedaturikoa ikusirik, Arautegi honen izapidetzeak ondoko pausoak izango ditu:

- Hasierako onespena, osoko bilkurari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta arautegiaren behin betiko testua onartzea, udalbatzaren osoko bilkurari dagokiona.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

**4.- Organo eskuduna**

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, arautegi honen aldaketaren onespena udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena da.

**Konklusioak:**

-Ordenantzak jasotzen du azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorraren 17.3. artikuluak ezartzen duen edukia.
-Zioen azalpenean ”konkurrentziazko lehiaren erregimenean” esamoldearen ordez, hau azalduko da: ”lehiarik gabeko konkurrentzia erregimenean”.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.
**Abstentzioa:** Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria eta Kristina Pelaez Errazkin.
Gehiengoz onartu dute.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA.-** Hasierako onarpena ematea Tolosako Udalean etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzari.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

**LAUGARRENA.**- Xedatzea, epe horretan alegaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko dela.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea Tolosako Udalean etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzari.

## 3. BEHIN BETIKO ONARTZEA ALDI BATERAKO LAN POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIA.

**Antolakuntza Batzordearen 2021eko maiatzaren 19ko irizpena.**

**AURREKARIAK**

**Lehena**.- Tolosako Udalbatzak, 2021eko otsailaren 25ean egindako Osoko bilkuran, besteak beste, hasierako onarpena eman zion Tolosako Udaleko aldi baterako lan poltsa kudeatzeko araudiari.

**Bigarrena**.- 2021eko martxoaren 11n, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratu zen iragarkia eta 30 lanegunez jendaurrean jarri zen. Informazio publikoaren epean alegazio bat egon da, Elkartu izeneko Gipuzkoako Desgaitasun fisikoa duten pertsonen Federazio koordinatzailearena, hain zuzen ere.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Alegazioan araudiaren 7. artikulua aldatzeko proposamena egiten dute, alegia, deitzeko irizpideak eta arautzen dituen zatian paragrafo berri bat sartzeko eskaera egin dute honako erredakzioarekin:

> *“Hasta que se alcance la cuota reservada por Ley a las Administraciones Públicas para la contratación de personas con discapacidad o la establecida en negociación si ésta fuera superior, en caso de que existan listas provenientes del turno restringido para personal con discapacidad, 1 de cada 3 contratos o nombramientos se efectuará a favor de este personal. Estas listas serán utilizadas con carácter complementario a las listas que corresponda utilizar de acuerdo al orden de prelación. Con el mismo límite, en caso de no existir listas provenientes del turno restringido para personal con discapacidad, se procurará realizar igual número de contratos o nombramientos a favor de este personal que deberá tener reconocida la condición de tal, con discapacidad de grado igual o superior al 33% por el órgano competente de la Administración y estar integrada en la lista que corresponda utilizar de acuerdo al orden de prelación establecido.”*

Halaber, adierazi dute honelako xedapenak sartu direla Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Donostiako, Irungo edo Azpeitiko udaletako lan poltsak arautzen dituzten xedapenetan edo Eusko Jaurlaritzak arautzen duen aldi baterako zerbitzuak emateko azken aginduetako batean (2021eko urtarrilaren 7koa).

Behin alegazioa aztertu ondoren, eta ikusirik diskriminazio positibo gisa kontsideratu daitekeen neurri bat dela, paragrafo hau udal araudiaren 7. artikuluan sartzea proposatzen da.

**ONARTZEKO PROZEDURA**

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 i) artikuluaren arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, 2021eko martxoaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratu eta 30 lanegunetako epean informazio publikoan egon eta gero, alegazioak ebatzi eta behin betiko izaeraz onartuko da araudia, eta, ondoren, araudi osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratuko dute.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria. Aho batez onartu dute.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehenik**.- Elkartu izeneko Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen Federazio koordinatzaileak egindako alegazioa onartzea eta Udalaren aldi baterako lan poltsa kudeatzeko araudiaren 7. artikuluan honako testu hau gehitzea:

> *"Legeak desgaitasunen bat duten pertsonak kontratatzeko herri-administrazioei erreserbatutako kuotara iritsi arte, edo negoziazioan ezarritakora iritsi arte, hori handiagoa bada, desgaitasuna duten langileen txanda mugatutik datozen zerrendak badaude, 3 kontratu edo izendapenetatik 1 langile horien alde egingo da. Zerrenda horiek lehentasun-ordenaren arabera erabili beharreko zerrenden osagarri gisa erabiliko dira. Muga berarekin, desgaitasuna duten langileen txanda mugatuko zerrendarik ez badago, langile horien aldeko kontratu edo izendapen kopuru bera egiten saiatuko da, eta Administrazioko organo eskudunak langile horien izaera aitortuta izan beharko du, % 33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa izan beharko dute, eta dagokion zerrendan sartuta egon beharko dute, ezarritako lehentasun-ordenaren arabera".*

Bigarrenik.- Tolosako Udaleko aldi baterako lan poltsa kudeatzeko araudia behin betiko izaeraz onartzea, eta araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, gardentasun atarian eta Udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du behin betiko onarpena ematea aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudiari.

**4. 2021. URTEKO LANPOSTU ZERRENDA BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA ETA HASIERAKO IZAERAZ ALDATZEA.**

Gaia mahai gainean geratu da.

**5. ONARTZEA 2020-2022 TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.**

**Antolakuntza Batzordearen 2021eko maiatzaren 19ko irizpena.**

2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan hainbat lerro txertatzeko proposamena jaso da hainbat sailetatik.

Dirulaguntza lerroa: 1.10. ZUTANI-TOLOSA elkarteari ekipamendua erosteko laguntza

| | |
|---|---|
| Saila | Gizarte Zerbitzuak |
| Hartzailea | ZUTANI-TOLOSA elkartea |
| Helburua | Covid-19aren ondorioz egondako eskari igoerari behar bezala erantzuteko ekipamendua osatzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Elkarte honek eskaintzen duen zerbitzua hobeto koordinatzeko eta eskaintzeko materiala erostea:<br>1. Administrazio-izapideak egiteko beharrezko baliabide teknologikoak bermatzea. Horretarako, ordenagailu bat erosteko dirulagunta aurreikusi da.<br>2. Eskaera igotzearekin batera, elikagaien bankutik jasotako izoztutako produktuak baldintza egokietan mantentzeko beste izozkailu bat behar dutela adierazi dutenez, hori erosteko dirulaguntza ematea aurreikusi da. |
| Egikaritze epea | 2021eko ekaina |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Produktuak erosi bezain pronto, laguntza zurituko du elkarteak. |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0500.781.01.231.00 | ZUTANI-TOLOSA elkartea | Elikagaien bankua kudeatzeko ordenagailua eta izozkailua | 3.060 € | Izenduna | 3.060 € |

Dirulaguntza lerroa: : 3.7 ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOAREN BERRESKURATZEA

| | |
|---|---|
| Saila | Kultura eta ondarea |
| Hartzailea | Andre Maria parrokia |
| Helburuak | - Ondare historiko-artistikoa berreskuratzea<br>- Ondare historiko artistikoa errestauratzea<br>- Ondare historiko-artistikoa zabaltzea |
| Lortu nahi diren ondorioak | Memoria kulturala galtzen utzi ez eta kondizio egokietan herritarrengana hurbiltzea. |
| Egikaritze epea | 2021-22 |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | - Baliabide propioak<br>- Laguntza publikoak: Aldundiarenak eta Udalarenak |
| Ekintza Plana | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Ondarearen hasierako egoera dokumentatu.<br>- Errestaurazio lanen jarraipena.<br>- Egindako lanen hedapen publikoaren plana.<br>-Ekintzen oihartzuna komunikabideetan. Ekintza islatu duten komunikabide kopurua. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.781.01.333.00 | Andre Maria parrokia | Eugenio Azcueren muralen errestaurazioa | 15.000 € | Izenduna | 15.000 € |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Dirulaguntza lerroa: 6.10. Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzak

| | |
|---|---|
| Saila | Merkataritza, Turismoa eta Azokak |
| Hartzaileak | Onuradun izan ahalko dira ostalaritza- eta turismo-sektoreetako pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, betiere Tolosan kokatutako jarduera ekonomiko baten titularrak badira. Zehazki, laguntza hauek honako jarduera hauei bideratuko zaizkie:<br>3. Tabernak<br>4. Jatetxeak<br>5. Sagardotegiak<br>6. Ostatu turistikoak: hotelak, nekazaritza-turismoko establezimenduak, apartamentu turistikoak, etab.<br>7. Bidaia-agentziak<br><br>Nolanahi ere, jarduera nagusia alta emanda egongo da ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) talde eta epigrafe hauetako edozeinetan: 426-671 – 672-673 – 681 – 682 – 683 – 755.2.<br>Ostalaritzaren sektoreko establezimenduen kasuan, gainera, eragina izan dute azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren eta urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren ondorioz EAEko agintariek emandako itxiera-aginduek. |
| Helburuak | Oinarri hauen xedea da ostalaritza- eta turismo-sektoreen tokiko ekonomia suspertzeko laguntzen emakida arautzea, sektore horien jarduera ekonomikoari, enpleguari eta lehiakortasunari eusteko, Covid-19ak eragindako inpaktuaren ondorio negatiboei aurre egin ahal izan diezaieten. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Ostalaritzaren eta turismoaren sektoreak bizi duten ziurgabetasun-egoera eta etengabeko aldaketak ahal diren neurrian arintzeko jarduketak ahalbidetzea, horrela, etorkizun hurbileko erronka berriei erantzun ahal izango baitie. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. |
| Ekintza Plana | Udalbatzak oinarriak onartuko ditu eta zinegotzi delegatuak deialdia. Eskaerak forman aurkeztuz gero, zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez ebatziko da dirulaguntza. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Aurkeztutako saltoki/enpresa kopurua.<br>- Diruz lagundutako saltoki kopurua.<br>- Banatutako dirulaguntza kopurua. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1100.471.01.430.00 | Ostalaritza- eta turismo-sektoreko pertsona fisiko eta juridikoak | Ostalaritza- eta turismo-sektoreak sustatu | 200.000 € | Lehiarik gabeko norgehiagoka prozedura | 200.000 € |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

<u>Dirulaguntza lerroa:</u> 8.1.- Bizikidetza eta kultur demokratikoa

| | |
|---|---|
| Saila | Gobernu Organoak |
| Hartzailea | Tolosako Oria Bizikidetza Elkartea |
| Helburuak | Udalerrian bizikidetza eta kultura demokratikoan sakondu. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Ikuspegi eta ibilbide anitzeko herritarren arteko bizikidetza ereduak sustatu. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera.<br>Finantzaketa: Tolosako Udala. |
| Ekintza Plana | Bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute, eta dirulaguntza izendun modura formalizatuko da. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusi dute eta dirulaguntza justifikatuko da Udalaren dirulaguntzaren ordenantza orokorrean aurreikusitako moduan. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Jardueren memoria.<br>Egitasmoaren betetze-maila. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0100.481.01.912.00 | Tolosako Oria Bizikidetza Elkartea | Udalerrian bizikidetza eta kultura demokratikoan sakondu | 9.500 € | Izenduna | 9.500 € |

Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeko justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Xabier Balerdi (EAJ): Aldeko botoa
Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Nerea Letamendia (EAJ): Aldeko botoa
Garbiñe Marzol (EH-Bildu): Aldeko botoa

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Ander Figuerido (EH-Bildu): Aldeko botoa
Kristina Pelaez (EH-Bildu): Aldeko botoa
Jose Mari Villanueva (PSE-EE): Aldeko botoa

Hori dela eta, Batzordeak hau

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena.-** Dirulaguntza lerro hauek sartzea 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan

Dirulaguntza lerroa: 1.10. ZUTANI-TOLOSA elkarteari ekipamendua erosteko laguntza

| | |
|---|---|
| Saila | Gizarte Zerbitzuak |
| Hartzailea | ZUTANI-TOLOSA elkartea |
| Helburua | Covid-19aren ondorioz egondako eskari igoerari behar bezala erantzuteko ekipamendua osatzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Elkarte honek eskaintzen duen zerbitzua hobeto koordinatzeko eta eskaintzeko materiala erostea:<br>1. Administrazio-izapideak egiteko beharrezko baliabide teknologikoak bermatzea. Horretarako, ordenagailu bat erosteko dirulagunta aurreikusi da.<br>2. Eskaera igotzearekin batera, elikagaien bankutik jasotako izoztutako produktuak baldintza egokietan mantentzeko beste izozkailu bat behar dutela adierazi dutenez, hori erosteko dirulaguntza ematea aurreikusi da. |
| Egikaritze epea | 2021eko ekaina |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Produktuak erosi bezain pronto, laguntza zurituko du elkarteak. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0500.781.01.231.00 | ZUTANI-TOLOSA elkartea | Elikagaien bankua kudeatzeko ordenagailua eta izozkailua | 3.060 € | Izenduna | 3.060 € |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Dirulaguntza lerroa: : 3.7 ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOAREN BERRESKURATZEA

| | |
|---|---|
| Saila | Kultura eta ondarea |
| Hartzailea | Andre Maria parrokia |
| Helburuak | - Ondare historiko-artistikoa berreskuratzea<br>- Ondare historiko artistikoa errestauratzea<br>- Ondare historiko-artistikoa zabaltzea |
| Lortu nahi diren ondorioak | Memoria kulturala galtzen utzi ez eta kondizio egokietan herritarrengana hurbiltzea. |
| Egikaritze epea | 2021-22 |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | - Baliabide propioak<br>- Laguntza publikoak: Aldundiarenak eta Udalarenak |
| Ekintza Plana | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Ondarearen hasierako egoera dokumentatu.<br>- Errestaurazio lanen jarraipena.<br>- Egindako lanen hedapen publikoaren plana.<br>-Ekintzen oihartzuna komunikabideetan. Ekintza islatu duten komunikabide kopurua. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.781.01.333.00 | Andre Maria parrokia | Eugenio Azcueren muralen errestaurazioa | 15.000 € | Izenduna | 15.000 € |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

<u>Dirulaguntza lerroa</u>: 6.10. Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzak

| | |
|---|---|
| Saila | Merkataritza, Turismoa eta Azokak |
| Hartzaileak | Onuradun izan ahalko dira ostalaritza- eta turismo-sektoreetako pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, betiere Tolosan kokatutako jarduera ekonomiko baten titularrak badira. Zehazki, laguntza hauek honako jarduera hauei bideratuko zaizkie:<br>8. Tabernak<br>9. Jatetxeak<br>10. Sagardotegiak<br>11. Ostatu turistikoak: hotelak, nekazaritza-turismoko establezimenduak, apartamentu turistikoak, etab.<br>12. Bidaia-agentziak<br><br>Nolanahi ere, jarduera nagusia alta emanda egongo da ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) talde eta epigrafe hauetako edozeinetan: 426-671 – 672-673 – 681 – 682 – 683 – 755.2.<br><br>Ostalaritzaren sektoreko establezimenduen kasuan, gainera, eragina izan dute azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren eta urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren ondorioz EAEko agintariek emandako itxiera-aginduek. |
| Helburuak | Oinarri hauen xedea da ostalaritza- eta turismo-sektoreen tokiko ekonomia suspertzeko laguntzen emakida arautzea, sektore horien jarduera ekonomikoari, enpleguari eta lehiakortasunari eusteko, Covid-19ak eragindako inpaktuaren ondorio negatiboei aurre egin ahal izan diezaieten. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Ostalaritzaren eta turismoaren sektoreak bizi duten ziurgabetasun-egoera eta etengabeko aldaketak ahal diren neurrian arintzeko jarduketak ahalbidetzea, horrela, etorkizun hurbileko erronka berriei erantzun ahal izango baitie. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. |
| Ekintza Plana | Udalbatzak oinarriak onartuko ditu eta zinegotzi delegatuak deialdia. Eskaerak forman aurkeztuz gero, zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez ebatziko da dirulaguntza. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Aurkeztutako saltoki/enpresa kopurua.<br>- Diruz lagundutako saltoki kopurua.<br>- Banatutako dirulaguntza kopurua. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1100.471.01.430.00 | Ostalaritza- eta turismo-sektoreko pertsona fisiko eta juridikoak | Ostalaritza- eta turismo-sektoreak sustatu | 200.000 € | Lehiarik gabeko norgehiagoka prozedura | 200.000 € |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

<u>Dirulaguntza lerroa:</u> 8.1.- Bizikidetza eta kultur demokratikoa

| | |
|---|---|
| Saila | Gobernu Organoak |
| Hartzailea | Tolosako Oria Bizikidetza Elkartea |
| Helburuak | Udalerrian bizikidetza eta kultura demokratikoan sakondu. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Ikuspegi eta ibilbide anitzeko herritarren arteko bizikidetza ereduak sustatu. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera.<br>Finantzaketa: Tolosako Udala. |
| Ekintza Plana | Bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute, eta dirulaguntza izendun modura formalizatuko da. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusi dute eta dirulaguntza justifikatuko da Udalaren dirulaguntzaren ordenantza orokorrean aurreikusitako moduan. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Jardueren memoria.<br>Egitasmoaren betetze-maila. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0100.481.01.912.00 | Tolosako Oria Bizikidetza Elkartea | Udalerrian bizikidetza eta kultura demokratikoan sakondu | 9.500 € | Izenduna | 9.500 € |

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2020-2022 Tolosako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

6. **HASIERAKO ONARPENA: 2021EKO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEA: 1-2021.**

**Antolakuntza Batzordearen 2021eko maiatzaren 19ko irizpena.**

2021eko dirulaguntzen eranskinean aldaketa hau sartzea proposatu da:

| Partida | Onuraduna | Helburua | Behin betiko aurrekontua 2021 | Mota |
|---|---|---|---|---|
| 0100.481.01.912.00 | BIZIKIDETZA FOROA | Bizikidetza landu | 9.500,00 € | Izenduna |
| 0500.781.01.231.00 | ZUTANI | Elikagaien bankua kudeatzeko ordenagailua eta izozkailua | 3.060,00 € | Izenduna |
| 0700.442.01.414.00 | TOLOMENDI | Ekarpena egokitzea | 3.500,00 € | Izenduna |
| 0800.781.01.333.00 | SANTA MARIA PARROKIA | Eugenio Azcueren muralen errestaurazioa | 15.000,00 € | Izenduna |
| 1100.471.01.430.00 | ENPRESAK | Ostalaritza eta turismo sektoreak suspertu | 200.000,00 € | Norgehiagoka |

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak**:
Xabier Balerdi Tolosa
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Garbiñe Marzol Ormazabal
Ander Figuerido Zubiria
Kristina Pelaez Errazkin
Jose Mari Villanueva Telleria

Hori dela eta, Batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena.-**Dirulaguntzen eranskinaren ondorengo aldaketari hasierako onarpena ematea eta eranskina honela uztea:

| Partida | Onuraduna | Helburua | Behin betiko aurrekontua 2021 | Mota |
|---|---|---|---|---|
| 0100.481.01.912.00 | BIZIKIDETZA FOROA | Bizikidetza landu | 9.500,00 € | Izenduna |
| 0500.781.01.231.00 | ZUTANI | Elikagaien bankua kudeatzeko ordenagailua eta izozkailua | 3.060,00 € | Izenduna |
| 0700.442.01.414.00 | TOLOMENDI | Funtzionamendu gastuak | 37.500,00 € | Izenduna |
| 0800.781.01.333.00 | SANTA MARIA PARROKIA | Eugenio Azcueren muralen errestaurazioa | 15.000,00 € | Izenduna |
| 1100.471.01.430.00 | ENPRESAK | Ostalaritza eta turismo sektoreak suspertu | 200.000,00 € | Norgehiagoka |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2021eko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aldaketa hori behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea 2021eko dirulaguntzen eranskin aldaketari (1-2021).

## 7. HASIERAKO ONARPENA: 4/2021 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

**Antolakuntza Batzordearen 2021eko maiatzaren 19ko irizpena.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, kreditu gehigarrien modalitateko 4/2021 espedientearen berri eman da.

Hau da proposamena:

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0300.162.01.920.10 2021 | PRESTAKUNTZA. PERTSONALA | 12.000,00 | 30.000,00 | 42.000,00 |
| 1 0700.211.01.920.31 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. ERAIKIN PUBLIKOAK | 87.972,00 | 36.000,00 | 123.972,00 |
| 1 0300.211.01.920.30 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. UDALETXEA | 30.000,00 | 15.000,00 | 45.000,00 |
| 1 0600.211.01.152.11 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. ETXEBIZITZAK AGARAMUNDU | 17.500,00 | 5.000,00 | 22.500,00 |
| 1 0600.211.01.152.13 2021 | EDIFIZIOEN MANTENIMENTZE LANAK. KONDEANEKO ALDAPA | 6.000,00 | 5.000,00 | 11.000,00 |
| 1 0800.211.01.326.20 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. MUSIKA ESKOLA | 15.000,00 | 15.000,00 | 30.000,00 |
| 1 0800.211.01.332.10 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. LIBURUTEGIA | 9.000,00 | 3.000,00 | 12.000,00 |
| 1 0800.211.01.333.00 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. ARAMBURU JAUREGIA | 11.000,00 | 3.000,00 | 14.000,00 |
| 1 0800.211.01.333.10 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. LEIDOR | 20.000,00 | 15.000,00 | 35.000,00 |
| 1 1100.211.01.430.20 2021 | EDIFIZIOEN MANTENTZE LANAK. ORIABURU | 8.000,00 | 3.000,00 | 11.000,00 |
| 1 0300.644.01.920.20 2021 | APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 15.000,00 | 29.476,00 | 44.476,00 |
| 1 0700.221.99.153.20 2021 | BESTELAKO HORNIDURAK .BIDE PUBLIKOAK | 120.000,00 | 18.150,00 | 138.150,00 |
| 1 0300.227.07.920.00 2021 | AZTERK. ETA LAN TEKNIKOAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA | 55.000,00 | 60.000,00 | 115.000,00 |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0300.227.07.920.10 2021 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. PERTSONALA | 26.950,00 | 64.000,00 | 90.950,00 |
| 1 0800.226.06.337.20 2021 | JARDUERA SOZIO KULTURALAK. GAZTERIA | 64.228,00 | 7.000,00 | 71.228,00 |
| 1 0800.227.04.337.20 2021 | KONTRATUAK. GAZTERIA | 142.000,00 | 30.000,00 | 172.000,00 |
| 1 1100.226.06.430.00 2021 | JARD. SOZIO KULTURALAK. GARAPEN EKONOMIKOA | 2.000,00 | 6.000,00 | 8.000,00 |
| 1 1100.227.07.431.10 2021 | KONTRATUAK. FERIA ETA AZOKAK | 0,00 | 18.150,00 | 18.150,00 |
| 1 1400.226.06.231.60 2021 | JARD. SOZIO-KULTURAK. BERDINTASUNA | 41.844,00 | 2.000,00 | 43.844,00 |
| 1 0100.481.01.912.00 2021 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.UNDEAK. GOBERNU ORGANUAK | 48.500,00 | 9.500,00 | 58.000,00 |
| 1 0500.781.01.231.00 2021 | DIRULAGUNTZAK ELKARTEEI. GIZARTE ZERB. | 0,00 | 3.060,00 | 3.060,00 |
| 1 0800.781.01.333.00 2021 | DIRULAGUNTZAK ELKARTEEI. KULTURA | 0,00 | 15.000,00 | 15.000,00 |
| 1 0700.601.01.153.20 2021 | ERABILERA OROKORRERAKO URBANIZAZIOAK. | 120.000,00 | 559.109,00 | 679.109,00 |
| 1 0700.601.06.153.20 2021 | ASFALTATZE LANAK | 0,00 | 380.000,00 | 380.000,00 |
| 1 0700.609.01.153.20 2021 | BESTELAKO INBERTSIOAK | 0,00 | 484.000,00 | 484.000,00 |
| 1 0700.622.02.920.31 2021 | ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK | 60.000,00 | 125.000,00 | 185.000,00 |
| 1 0300.626.01.920.20 2021 | INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK. INFORMATIKOAK | 50.000,00 | 22.000,00 | 72.000,00 |
| 1 0600.680.01.151.10 2021 | LURSAILAK. HIRIGINTZA | 0,00 | 76.250,00 | 76.250,00 |
| 1 1400.622.02.231.61 2021 | EMAKUMEEN ETXEA | 33.540,00 | 420.000,00 | 453.540,00 |
| **GUZTIRA** | | 995.534,00 | 2.458.695,00 | 3.454.229,00,00 |

| Kodea | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 870.01 2020 | ALTXORTEKIKO GERAKINA | 2.458.695,00 |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | | **2.458.695,00** |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Kontuhartzaileak egindako txostenean adierazi du aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.

**Abstentzioa**: Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Hori dela eta, Batzordeak honek

**DIKTAMINATU DU**

**Lehenengoa.-** Hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 4/2021 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 1 | PERTSONAL GASTUAK | 30.000,00 |
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 305.300,00 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 9.500,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 2.095.835,00 |
| 7 | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 18.060,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **2.458.695,00** |

**FINANTZAKETA**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 | FINANTZA AKTIBOAK | 2.458.695,00 |
| | **GUZTIRA** | **2.458.695,00** |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**Bigarrena.-** Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko onartutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 4/2021 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari.

**8.TOLOSAKO OSTALARITZA ETA TURISMOKO SEKTOREEN EKONOMIA SUSPERTZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**

**Herritarrak Batzordearen 2021eko maiatzaren 19ko irizpena.**

**AURREKARIAK:**

2021eko maiatzaren 13an, Garapen ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapenerako buruak proposatu du ordenantza h a u onartzea: Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzen oinarriak arautzen dituen Ordenantza. Aurretik Plan Estrategikoan dirulaguntza lerro hori sartzea ere proposatu du.

Txostenean egindako azalpena honako hau da:

"COVID-19a dela-eta 2020ko martxoaren 14an ezarritako alarma-egoeraren ondorioz ezarritako beharrezko mugapenek egoera sozioekonomiko larria sortu dute, orokorrean biztanleria osoari, eta, batez ere, sare ekonomikoari eragiten diona, bereziki ostalaritzaren eta turismoaren sektoreei, ezarritako itxiera-aginduen eta pertsonen zirkulazio askea mugatu baita.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Gainera, sektore horiek jarduerari berrekin diotenean, zailtasunak izaten ari dira bizirauteko eta egoera berrira egokitzeko.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da ezohiko laguntza-programa bat abian jartzea, ostalaritzaren eta turismoaren sektoreak bizi duten ziurgabetasun-egoera eta etengabeko aldaketak ahal diren neurrian arintzeko jarduketak ahalbidetzeko, horrela, etorkizun hurbileko erronka berriei erantzun ahal izango baitie".

Halaber, txosten juridikoa eskatu du.

**AZTERKETA JURIDIKOA**

**1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena**
Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 17.1.25. artikuluaren arabera udalek, besteak beste, esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: tokiko ekonomia eta gizarte-garapena.

Era honetan, Tolosako U dalak ematen dituen tokiko ekonomia eta gizarte garapena sustatzeko zerbitzuak, batetik sustapeneko udal eskumenak dira, eta bestetik, lan arloko legeriaren exekuzioaren ikuspuntutik hartuta, autonomia erkidegoaren ahalmenaren delegazioz eskaintzen diren zerbitzuak izango lirateke, hori dena Euskadiko Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 9.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera: *Euskal botere publikoek, beroriei dagozkien alorretan: …. c) ekonomiaren egonkortasuna sustatzen lagun dezaketen neurriak hartuko dituzte.*

**2. Oinarrien izaera eta tratamendu juridikoa-**
Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluak erregelamenduak (eta beraz, kasu honetan oinarriak) egiteko eta bere burua antolatzeko ahalak esleitzen dizkie udalei, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik eta beren eskumenen esparruan.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. Tituluan, legegintza-ekimenari eta erregelamenduak emateko ahalari buruzkoan, arauketa berri bat arautzen du, eta administrazioek legegintza-ekimenaren eta erregelamenduak egiteko ahalaren egikaritza hartara egokitu beharko dute. Hala, 129. artikuluan ezartzen du administrazioek printzipio hauen arabera jardungo dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**3- Udalaren sustapen-neurriak eta dirulaguntzak**

**-Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24** eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.

Herri Administrazioen dirulaguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikuluak, dirulaguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartu behar direla xedatzen du. Aipatu artikuluaren 3. atalak, oinarrien publizitatea arautzen du, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

***3.** La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, como mínimo, los siguientes extremos:*

a) *Definición del objeto de la subvención.*

b) *Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta ley, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*

c) *Condiciones de solvencia y eficacia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta ley.*

d) *Procedimiento de concesión de la subvención.*

e) *Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.*

f) *Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.*

g) *Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.*

h) *Determinación, en su caso, de los libros y registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.*

i) *Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario o de la entidad colaboradora, en su caso, del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.*

j) *Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.*

k) *Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar los beneficiarios.*

l) *Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

m) *Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.*

n) *Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.*

**-Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorraren arabera:**

"Artículo 2. Concepto de subvención.

1. Se entiende por subvención, a los efectos de esta ley, toda disposición dineraria realizada por cualesquiera de los sujetos contemplados en el artículo 3 de esta ley, a favor de personas públicas o privadas, y que cumpla los siguientes requisitos:

a)Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.

b)Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

c)Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública."

**-1955ko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. artikuluaren arabera:**

"Se considerara subvención cualquier auxilio directo o indirecto, valorable económicamente, a expensas de las Entidades locales, que otorguen las Corporaciones, y, entre ellos, las becas, primas, premios y demás gastos de ayuda personal."

**Aurreko izaeraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren beharra**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzak erregulatzeen dituenak, honela dio bere 8.1.artikuluan:

"Artículo 8. Principios generales.

1. Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

2. Cuando los objetivos que se pretenden conseguir afecten al mercado, su orientación debe dirigirse a corregir fallos claramente identificados y sus efectos deben ser mínimamente distorsionadores.

3. La gestión de las subvenciones a que se refiere esta ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

a)Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.

b)Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.

c)Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos."

Zentzu honetan, Udalbatzak 2020-2022 urteetarako Tolosako udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen. Dirulaguntza lerro hau, ez dago sartuta, beraz, erasnkin gisa, sartu beharko litzateke ( 6.10 dirulaguntza lerroa).

**- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55 artikulua**:

Laguntza emateko prozedura elkarrekiko **lehiarik gabekoa** izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

Aipatutako Errege Dekretuak hauxe dio 55. artikuluan:

"Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura izango da, baina, aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren oinarri arautzaileek ez dute bete beharko aurkeztutako eskabideen artean lehentasun ordena bat ezartzeko betekizuna, baldin eta deialdian ezarritako kreditua nahikoa bada, eta aurkezteko epea amaitu ondoren eskabideen kopurua kontuan hartuta".

Beraz, ez gaude norgehiagoka-prozedura baten aurrean, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdunak izango baitira deitutako dirulaguntzen onuradunak.

Kontuan hartu behar da dirulaguntza mota hauetan ez dela zehazten zer balorazio irizpide bete behar diren aurkeztutako eskabideen artean lehentasuna ezartzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluak oro har eskatzen duen bezala.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**-Oinarrien izapidetzea:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, arautegi honen izapidetzeak pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezen.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta arautegiaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat emango da.

**4.- Organo eskuduna**

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, osoko bilkurak du es kumena Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzen oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren onartzeko.

Tolosako Udaleko Herritarren Batzordeak, 2021eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Izarne Iglesias, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Begoña Tolosa, Garbiñe Marzol eta Xabier Martinez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA.-** Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzen oinarriak arautzen dituen Ordenantzari hasierako onarpena ematea, honako testuaren arabera:

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea**

Oinarri hauen xedea da ostalaritzaren eta turismoaren sektoreetan tokiko ekonomia suspertzeko dirulaguntzak emateko modua arautzea. Horien helburua da Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, bi sektore horiek COVID-19ak sortutako krisiaren inpaktuaren eraginei aurre egin diezaieten.

**2. artikulua. *Onuradunak***

Onuradun izan ahalko dira ostalaritza- eta turismo-sektoreetako pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, betiere Tolosan kokatutako jarduera ekonomiko baten titularrak badira. Zehazki, laguntza hauek honako hauei bideratzen zaizkie:

- Tabernak
- Jatetxeak
- Sagadotegiak
- Ostatu turistikoak: hotelak, nekazaritza-turismoko establezimenduak, apartamentu turistikoak, etab.
- Bidaia-agentziak

Nolanahi ere, jarduera nagusia alta emanda egongo da ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) talde eta epigrafe hauetako edozeinetan: 426-671 – 672-673 – 681 – 682– 683 – 755.2.

Ostalaritzaren sektoreko establezimenduen kasuan, gainera, eragina izan dute azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren eta urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren ondorioz EAEko agintariek emandako itxiera-aginduek.

**3.artikulua. *Onuradunek dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.*** Dirulaguntzen onuradun izan daitezke honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak:

1. Jarduera funtzionamenduan dagoen Tolosako establezimendu batean egitea. Ez da beharrezkoa izango pertsona edo erakunde eskatzailea Tolosako udalerrian erroldatuta egotea.

2. Deialdi hau argitaratzen den unean, alta emanda egotea I. eranskinean agertzen den ekonomia-jardueren gaineko zergako talde edo epigrafe batean.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

3. Jardueraren balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZa) likidazioan kopurua gutxienez % 40 murriztu dela egiaztatzea, 2019ko 3. eta 4. hiruhilekoak 2020. urtekoekin alderatuta.

- Salbuespen gisa, jarduera 2019ko ekitaldiko 4. hiruhilekoaren ondoren hasi duten onuradunek ez dute egiaztatu beharko aurreko puntuan zehaztutako murrizketa.
- Zergak moduluka ordaintzen badira, jardueraren etekin ekonomikoa gutxienez % 40 murriztu dela egiaztatu beharko da, 2019ko ekitaldiari dagokionez, 2020ko ekitaldiarekin alderatuta.

4. Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean egotea, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.

5. Ordainketetan egunean egotea Ogasunarekin, Tolosako Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin.

6. Ohiko jarduera ekonomikoa lanaldi osoan mantentzea, dirulaguntza ematen denetik gutxienez hiru hilabetez. Jarduerari ez eusteko eta epe hori zenbatzeko salbuespen bakar izango dira agintari eskudunek COVID-19aren ondorioz establezimenduak irekitzeko ezartzen dituzten baldintzak.

7. Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.

8. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako gainerako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, horietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizunak eta baldintzak. Nolanahi ere, onuradun bakarra izango da, eta taldearen ordezkari bat izendatu beharko da, nahikoa ahal duena taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**4. Artikulua.** ***Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa***

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da:

- Ostalaritza-sektoreko establezimendu bakoitzeko mila euro (1.000) eskabide bakoitzeko. Zenbateko horri bi mila euro (2.000) gehituko zaizkio terrazan gehienez 4 mahai dituen establezimendu bakoitzeko.

- Turismo-sektoreko establezimendu bakoitzeko hiru mila euro (3.000) eskabide bakoitzeko.

**5. artikulua.** ***Ordaintzeko modua***
Diru-ekarpenak ordainketa bakar batean egingo dira, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

**6. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea.**

Aurkezteko modua:
Pertsona edo erakunde interesdunak eskabide bakarra egin beharko du, jarduera zein establezimendutan egiten duen kontuan hartu gabe. Onuradun bakoitzeko laguntza-espediente bakarra izapidetuko da.

**Aurkezteko lekua:**

Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

a) Aurrez aurre, UDATEn.
b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.
c) Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

Eskaera postaz bidaltzen bada, mezu elektroniko bat bidali beharko da, bidalketaren frogagiriarekin, helbide elektroniko honetara: merkataritza@tolosa.eus.

Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere, eta aurrez aurreko erregistroa pertsona fisikoentzat soilik onartuko da.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**Aurkezteko epea:**

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

**7. artikulua. *Dokumentazioa***
Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Deialdirako eskabide-orri espezifikoa (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Balio erantsiaren gaineko Zergaren likidazioa, 2019ko eta 2020ko ekitaldietako 3. eta 4. hiruhilekoei dagokiena.

- Zergak moduluka ordaintzen badira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu beharko da, bai eta zuzeneko zenbatespeneko jarduera ekonomikoen etekinen 6. eranskina ere, 2019ko eta 2020ko ekitaldiei dagokiena.

3. Ondasun erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.

4. Tolosako Udalak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri osagarri.

39/2015 Legearen 28.2 artikuluaren arabera, Udalak kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu dagoeneko bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Kasu horretan, arrazoia justifikatu beharko du, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu, izapidetzeko.

Ildo horretan, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuen bidez:

- EJZren epigrafe egokian alta emanda egotea.
- Ordainketetan Ogasunarekin, Tolosako Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoelako ziurtagiria.
- Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Arazo teknikoak medio ezin bada kontsulta egin datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuen bidez, salbuespen gisa, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentazioa aurkezteko.

Edozein kontsulta egiteko edo gorabehera argitzeko, interesdunak 943.697.521 telefono-zenbakira eta merkataritza@tolosa.eus helbide elektronikora jo dezake.

**8. artikulua. *Dirulaguntza emateko prozedura***

Laguntzak lehiarik gabeko norgehiagoka prozeduraren bidez emango dira, dokumentazio osoaren sarrera-erregistroaren ordenaren arabera, 2. artikuluan adierazitako aurrekontu-mugaraino.

Dirulaguntzen eskaerei erantzuteko, aurkezpen-eguna eta ordua hartuko dira erreferentziatzat. Zuzendu behar izanez gero, eskabidea balio osoz osatzeko dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziatzat, eta, betiere, deialdirako dagoen kredituaren mugaraino.

**9.artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak.**

**- Bideratzea**

Dirulaguntza horiek emateko prozedura bideratzea Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Azoketako Sailari dagokio. Sail horrek, osatutako espedienteak ebaluatu eta aztertu ondoren, eta 2021eko ekitaldirako udal aurrekontuaren arabera erabilgarri dagoen kreditua agortu arte, nahitaezko txostenak egingo ditu, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

**- Balorazioa:**

Herritarren Informazio Batzordeari dagokio eskabideak baloratzea, saileko arduradunak emandako txostenean oinarrituta. Balorazio eta emakida-proposamen horiek organo eskudunari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan.

**- Ebazpena:**

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**10. artikulua. Emandako dirulaguntza zuritzeko epe arrunta**

Eskaera aurkezteko epean, dirulaguntza zuritzeko agiriak aurkeztu beharko dira.

**11. artikulua.** ***Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea.***

Dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi beharko du zer pertsonari ematen zaion eta zer zenbateko duen.

Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, DLOko 25.5 artikuluak xedatzen duen moduan.

Emakidari buruzko behin betiko ebazpena Tolosako Udalaren webgunean argitaratuko dute. Halaber, behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

Nolanahi ere, deialdiaren behin betiko ebazpena ematea oinarrien jendaurreko emaitzaren mende egongo da.

**12. artikulua.** ***Onuradunaren betebeharrak.***

Onuradunak betebehar hauek ditu:

- Jarduera lanaldi osoan mantentzea dirulaguntza eman eta hurrengo hiru hilabeteetan. Bestela, bete ez duen aldiaren proportzioan itzuli beharko du zenbatekoa.

Kalkulu hori egiteko, ez dira kontuan hartuko agintaritza eskudunek COVID-19aren ondorioz agindutako nahitaezko itxiera-aldiak.

- Oro har, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako beste edozein betebehar.

**13. artikulua.** ***Emandako dirulaguntzen publizitatea***

Udalak egingo du emandako dirulaguntza guztien publizitatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan aurreikusten den moduan.

**14. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna.**

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Hemen arautzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko ala erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jarduerarен kostua gaindituko.

Erakunde onuradunak arau honetan erregulatutako xede berdinerako dirulaguntza lortu eta/edo eskatzen badu, modu frogagarrian jakinaraziko dio Udalari.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolanahi ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

**15 artikulua. *Aplikatu beharreko araudia***
Testu honetan araututako dirulaguntzek arau xedapen hauetan ezarritakoa beteko dute:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2017ko uztailaren 7koa.
- 2020-2022 diru-laguntzen plan estrategikoa.

**16.artikulua. *Errekurtsoak***
Deialdi honen aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Tolosako Udaleko Osoko Bilkurari, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo ezetsi arte. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

**17. artikulua. *Datu pertsonalen babesa***
Datu pertsonalen babesari buruz, xedapen hauek aplikatuko dira besteak beste:

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Udala izango da datu pertsonalak tratatuko dituen entitatea eta tratamenduaren ardura izango duena. Tratamendu horren helburua dirulaguntzen ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea izango da, horretarako zilegitasuna aipatutako legedian jasota dagoelarik.

Herritarrak eskubide hauek izango ditu: datuetara sarbidea izateko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta hura mugatzeko.

**18. artikulua. Ez-betetzeak eta administrazio-zigorrak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura.**

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako edozein betebehar ez betetzeak dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa baliogabetu edo itzuli beharko da.

Itzulketa-prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza errebokatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke, arrazoiak emanez.

Prozedura izapidetzean, interesdunak hura ezagutzeko duen eskubidea bermatuko da beti.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak. izan daitezke:

- Arau-hauste arinak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56. artikuluan daude jasota.

- Arau-hauste larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 57. artikuluan daude jasota.

- Arau-hauste oso larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikuluan daude jasota.

Arau-hauste horiei azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 59. eta hurrengo artikuluetan adierazten diren zigorrak dagozkie.

**19. artikulua.** ***Ahalmena ematea***

Ahalmena ematen zaio alkateari Ordenantza honetan edozein motatako aldaketa sartzeko, baina aldaketa horiek erantzun behar diete nahitaez aplikatu beharreko

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

lege-aldaketei, zeinek beraiekin dakarten baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo portzentajeak automatikoki ordenatzea. Aldaketa horiek berehala jakinarazi behar dizkio osoko bilkurari, hark berretsi ditzan.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

**LAUGARRENA.**-Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartutzat joko dela.

**BOSGARRENA.**- Aipatutako dirulaguntza lerroa 2020ko martxoaren 5ean onartu zen 2020-2022 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzeko onartzea eta dirulaguntzen eranskina aldatzea, modu honetara:

**Saila: 6.- Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapena.**

Dirulaguntza lerroa: 6.10. Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzak

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| | |
|---|---|
| Saila | Merkataritza, Turismoa eta Azokak |
| Hartzaileak | Onuradun izan ahalko dira ostalaritza- eta turismo-sektoreetako pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, betiere Tolosan kokatutako jarduera ekonomiko baten titularrak badira. Zehazki, laguntza hauek honako hauei bideratzen zaizkie:<br>• Tabernak<br>• Jatetxeak<br>• Sagardotegiak<br>• Ostatu turistikoak: hotelak, nekazaritza-turismoko establezimenduak, apartamentu turistikoak, etab.<br>• Bidaia-agentziak<br><br>Nolanahi ere, jarduera nagusia alta emanda egongo da ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) talde eta epigrafe hauetako edozeinetan: 426-671 – 672-673 – 681 – 682 – 683 – 755.2.<br>Ostalaritzaren sektoreko establezimenduen kasuan, gainera, eragina izan dute azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren eta urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren ondorioz EAEko agintariek emandako itxiera-aginduek. |
| Helburuak | Oinarri hauen xedea ostalaritza- eta turismo-sektoreen tokiko ekonomia suspertzeko laguntzen emakida arautzea, sektore horien jarduera ekonomikoari, enpleguari eta lehiakortasunari eusteko, Covid-19ak eragindako inpaktuaren ondorio negatiboei aurre egin ahal izan diezaieten. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Ostalaritzaren eta turismoaren sektoreak bizi duten ziurgabetasun-egoera eta etengabeko aldaketak ahal diren neurrian arintzeko jarduketak ahalbidetzea, horrela, etorkizun hurbileko erronka berriei erantzun ahal izango baitie. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Ikusi taulan. |
| Ekintza Plana | Udalbatzak oinarriak onartuko ditu eta zinegotzi delegatuak deialdia. Eskaerak forman aurkeztuz gero, zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez ebatziko da dirulaguntza. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | • Aurkeztutako saltoki/enpresa kopurua.<br>• Diruz lagundutako saltoki kopurua.<br>• Banatutako dirulaguntza kopurua. |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOT | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1100.471.01.430 .00 | Ostalaritza eta turismo sektoreko pertsona fisiko eta juridikoak | Ostalaritza eta turismo sektoreak sustatu | 200.000 € | Lehiarik gabeko norgehiagoka prozedura | 200.000 € |

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea Tolosako ostalaritza eta turismoko sektoreen ekonomia suspertzeko laguntzen oinarriak arautzen dituen Ordenantzari.

## 9. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA "24. IURRE ESPARRUKO "24.1IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI

**Lurralde Batzordearen 2021eko maiatzaren 19ko irizpena.**

### I.- AURREKARIAK

- 2019ko abenduaren 16an 24.1. Azpiesparruko Plan Berezia eta Ingurumen Estrategikoko dokumentua aurkeztu ziren.
- 2020ko apirilaren 27an 24.1. Azpiesparruko Plan Berezi berria eta Ingurumen Estrategikoko dokumentu berria aurkeztu ziren.
- 2020ko abuztuaren 3an JM20_037 txosten teknikoa idatzi zen zuzenketak eskatuz.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

- 2020ko abuztuaren 10ean dokumentazio osagarria aurkeztu zen telematikoki eta baita papereko bi kopia ere.

- 2020ko abuztuaren 12an Udaleko euskara teknikariak txostena idatzi zuen hizkuntza-inpaktuaren azterlanaren beharraren inguruan.

- 2020ko abuztuaren 13an Udaleko hirigintza buruak txostena idatzi zuen.

- 2020ko urriaren 8an Joseba Beristain aholkulari juridikoak txostena idatzi zuen eremuari eragiten dion hirigintza-hitzarmenari buruz.

- 2020ko urriaren 21ean udaleko Hirigintzako AOTak txostena idatzi zuen.

- **2020ko urriaren 27an Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu zuen:**

***"LEHENA.-*** *Hasierako onespena ematea "24.1 Iurramendi pasealekua" Hiri Antolamenduko Plan Bereziari eta azpiesarru honi dagokion ingurumen dokumentu estrategikoari (ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren). Construcciones Sukia Eraikuntzak SAk eta Fundación Benéfico Particular Miguel Muñoak sustatu dute azpiesparruko lurzoruen % 90 inguru ordezkatuz. Honako baldintza hauek bete beharko dira behin betiko onespenerako:*

*• Construcciones Sukia Eraikuntzak SLren ordezkariak dokumentatu beharko ditu bere ordezkaritza eta Muñoa Fundazioarena.*

*• Plan berezian txertatu beharko dute ordezko bizitokien eta/edo jarduerak iraungi edo lekualdatu behar zaizkien titularren zerrenda eta baita ere plangintzak eragiten dituen interesdun, jabe eta eskubide titularren zerrenda.*
*Hala ere, titular, jabe eta interesdun horiek alde izaera dutenez, akordio honen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean zerrenda horiek aurkeztu behar dituzte sustatzaileek, Udal honek haiei jakinarazpenak egin diezazkien.*

*• Kalifikazio Globaleko planoak eta memoria zuzendu egin beharko dira. Izan ere, A.20 Eraikuntza irekiko bizitegi zonaren eta E.10 Bide komunikazioen sistema orokorreko azalerek ez dute % 5eko aldea betetzen HAPOn ezarritakoekiko.*

*• Iparraldetik parkera sartzeko proposatu den eskailera a.20.5 partzela pribatuaren parte da oraingo proposamenean. Hala, partzela horren azalera eta sestrapeko eraikigarritasuna handitu egin dira. Eskailera hori zortasun publikoa duen partzela pribatu bezala izendatu da. Baina eskailera hori bide komunikazioko tokiko sistemen sarearen parte izendatu beharko da eta horrek eskatzen dituen zuzenketa guztiak egin beharko dira memorian eta planoetan.*

*• o3b planoa zuzendu egin beharko da, zehaztutako azalerak ez baitatoz bat memorian eta o3a planoan zehaztutakoekin.*

*• Ordenantza Arautzaileei dagokienez, teilatuazpiko solairuak aipatzen dira eta partzeletako fitxetan zehazten den profila 2 soto+4 solairu+atikoa da. Kontraesan hori argitu egin beharko da.*

*• Beharrezkoa izango da aldeko txosten sektorial hauek jasotzea:*

*1.-EJko Ingurumen Saileko ingurumen organoak idatzitako Ingurumen Aitorpen Estrategikoa (ingurumen txostena) eta planak barneratu beharko ditu txosten honetatik datozen aldaketak, horrela izango balitz behintzat.*
*2.-GFAko Errepide Sailaren baimena.*
*3.- Komunikazio elektronikoen hedapenaren aldeko txostena.*
*4.- Zortasun aeronautikoen aldeko txostena.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

***BIGARRENA.-*** *Berdeguneetarako eta espazio libreetarako eta tokiko beste zuzkidura publikoetarako azalera guztia eremuan betetzea ezinezkoa denez, Hirigintza Estandarrei buruzko 123/2012 dekretuko 7.3 artikuluaren arabera, azalera horiei dagokien balio ekonomikoa kalkulatu eta diru-sarrera egin beharko da, dekretu horren 5. artikuluan xedatu bezala. Birpartzelazio Proiektuan aipatutako balorazioak kuantifikatu eta justifikatu egin beharko dira. Gainera, balorazioa merkatuko azterketa batean oinarritu beharko da.*

***HIRUGARRENA.-*** *Muñoa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren indarraldiari buruz, eta hura azkendutzat emateko abiaraziko den prozedurari kalterik egin gabe, hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz Udalaren hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioen parte-hartzea hirigintza eraikigarritasunaren % 15ekoa izango da, urbanizazio kostuetatik libre.*

*Beraz, izapidetuko den berariazko prozeduraren mende, onartzen den plan bereziaren testua egokitu egin beharko da eta testuan zehar aspektu honi egiten zaizkion aipamenak zuzendu.*

***LAUGARRENA.-*** *Urtebeteko epean, edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintzaaraubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako.*

***BOSGARRENA.-*** *Jendaurrean jartzeko aldi bat irekitzea 20 eguneko epean, iragarkia lurralde historikoko aldizkari ofizialean, lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta udal honetako iragarki-taulan. Epe horretan, edozein interesdunek aztertu ahal izango du udal-bulegoetan, egoki iritzitako alegazioak egiteko.*
*Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan*
(https://www.tolosa.eus), Plan Berezia bera eta haren parte de ingurumen-dokumentua.

***SEIGARRENA*** *.- Erabaki honen berri ematea interesdunei eta Hirigintza departamentuari."*

- Tolosako udalak 20 egunez jendaurrean jarri zuen Plana egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko:

- Erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten 2020ko azaroaren 18an, 221. zenbakian.
- Prentsan ere argitaratu zuten iragarkia, 2020ko azaroaren 11an, *Diario Vasco*n, *Berria*n eta *Tolosaldeko Ataria*n, hain zuzen ere.
- Udaletxeko iragarki taulan berriz, 2020ko azaroaren 9tik abenduaren 10a bitarte egon zen.
- 2021eko urtarrilaren 21ean Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu zen interesdun bati dagokion jakinarazpena.
- Jendaurreko informazio epealdian, honakoek alegazioa aurkeztu dute: 2020ko abenduaren 4an, Construcciones Sukia Eraikuntzak, SL enpresak eta Miguel Muñoa Fundazioak elkarrekin aurkeztua, 2020-10377 erregistroko sarrera zenbakiarekin.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

- Tolosako Udalak kontsulta egin zien ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei.

- 2020ko azaroaren 16an Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2020ko azaroaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, Plan Bereziaren Ingurumen Txosten Estrategikoa egin zuen. 2020ko azaroaren 26ko EHAAn argitaratua, (236. Zk).

- 2021eko apirilaren 28an 24.1. Azpiesparruko Plan Bereziaren Testu Bategina aurkeztu zen.

- 2021eko maiatzaren 13an udaleko Ingurumen teknikariak txosten idatzi du.

- 2021eko maiatzaren 13an udaleko Hirigintza AOTak txosten idatzi du.

- 2021eko maiatzaren 14an udaleko Hirigintza Arduradunak txostena idatzi zuen.

**Erlazionatutako espedinteak:**

- B.5.1/24.1/2008.0001. 24.1 Iurramendi pasealekua Azpiesparruko Hirigintza Hitzarmena
- B.5.1/24.1/2018/0001. 24.1 Iurramendi pasealekua Azpiesparruko Jarduketa Integratua
- 2020-H130-0001. 24.1 Iurramendi pasealekua Azpiesparruko Ingurumen Txosten Estrategikoa

## II.- ALEGAZIOEI ERANTZUNA

2021eko maiatzaren 13an Hirigintzako AOTak txostena egin du honen inguruan eta honakoa jasotzen da bertan:

*“2020ko abenduaren 4an, Construcciones Sukia Eraikuntzak SLk alegazioak aurkeztu zituen, asmo bikoitzarekin:*

*- Alde batetik, a.20.1/24.1 eta a.20.1/24.2 lurzatiei – Etxebizitza tasatukoei – eragiten dien antolamendu xehatua aldatzeko, lurzati bakar gisa elkartzeko eskatuz.*

*- Bestalde, 2008ko irailaren 28ko hirigintza-hitzarmena ebazteko espedienteari uko egiteko, nahiz eta honek dagokion administrazio-espedientea izan, eragina duelako hirigintza dokumentuan, udalari dagokion hirigintza-eraikigarritasunaren legezko lagapenari dagokionez.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

*2021eko martxoaren 10ean Hirigintza Buruak egindako txostenean alegazioen lehen puntua aztertzen zen eta bertan ondorioztatzen zen 24.1 Iurramendi Pasealekua azpiesparruko hiru antolamenduko plan bereziaren hasierako onespeneko tramitean Construcciones Sukia Eraikuntzak, Slk aurkeztutako alegazioaren lehen puntua onartzea, hau da, a.20.1/24 eta a.20.2/24.2 lursailek lursail bakar bat osatzeko eskaera onartzea.*

*2021eko martxoaren 26an Udaleko aholkulari juridikoa den Joseba Beristainek txosten juridikoa egin zuen, alegazioen azterketa juridikoa eginez. Lehen alegazioari dagokionez, eskatutako aldaketa egiteko eragozpen juridikorik ez dagoela ondorioztatzen du. Bigarren puntuari dagokionez, Plan Bereziaren hirigintza antolamenduarekin harremanik ez duenez, alegazio hori ez dela onargarria ondorioztatzen du."*

**III.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEKO AURKEZTUTAKO DOKUMENTUA**

Erregistro elektroniko bidez 2021eko apirilaren 28an aurkeztutako dokumentazioa honakoa da: eskaera orriarekin batera 24.1 Iurramendi Pasealekuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bategina("Plan especial de ordenación urbana subámbito 24.1 Iurramendi Pasealekua Tolosa") Dokumentua gazteleraz bakarrik aurkeztu da. Iñaki Echeverria Izaguirre arkitektoak eta Aitor Gabilondo Ruiz abokatuak izenpetuta dago.

Dokumentuaren atalak honakoak dira:

- A Dokumentua. Memoria
- B Dokumentua. Ordenantza Arautzaileak
- C Dokumentua. Antolakuntza eta Exekuzioaren Kudeaketaren Artezpideen Azterketa.
- D Dokumentua. Bideragarritasun ekonomiko-finantziarioaren azterketa.
- E Dokumentua. Jasangarritasun ekonomikoaren azterketa.
- F Dokumentua. Generoaren gaineko eraginaren ebaluazioa.
- G Dokumentua. Eragin linguistikoaren ebaluazioa.
- H Dokumentua. Egikaritze-laburpena.
- I Dokumentua. Dokumentazioa grafikoa.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honen xedea honakoa da: 24.1 azpieremuko hirigintza-antolamendu xehatuaren zehaztapenak ezartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56. artikuluaren arabera.

Zehatzago esateko bi helburu nagusi ditu aurkeztutako proposamenak: batetik, tokiko sistemak definitzea, bai eta horiek plan orokorrak definitutako sistema orokorren

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

sarean konektatzea eta integratzea ere. Bestetik, Plan orokorrean jasotako ordenazio xehatuaren ondoriozko partzelak aldatzea.

## IV.- AZTERKETA JURIDIKOA

2021eko maiatzaren 13an Hirigintzako AOTak txostena egin du honen inguruan eta honakoa jasotzen da bertan:

*"(...)*

### *III.- HASIERAKO ONESPENAREN AKORDIOAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZ*

*Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 27an hartutako erabakian hainbat baldintza betetzea eskatzen zuen behin betiko onespenerako.*

*Sustatzaileen ordezkaritzari dagokionez, aurkeztutako agirietan egiaztatu da bai Construcciones Sukia Eraikuntzak, SLren ordezkaritza eta baita Muñoa Fundazioaren ordezkaritza ere.*

*Bestalde, Plan Berezian txertatu dira ordezko bizitokien eta/edo jarduerak iraungi edo lekualdatu behar zaizkien titularren zerrenda eta baita plangintzak eragiten dituen interesdun, jabe eta eskubide titularren zerrenda ere (Memoriaren 37. orrialdean).*

*Gainontzeko baldintzak txosten teknikoan aztertuko dira.*

### *IV.- TXOSTEN SEKTORIALAK*

*Plan Berezia izapidetzean, txostena eskatu zaie beste administrazio publikoei, eta honako txosten hauek jaso dira:*

*1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintza eta Ustiaketa zuzendariak 2021eko urtarrilaren 15ean egindako txostena.* ***ALDEKO TXOSTENA.***

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

*2.- Telekomunikazioetako eta Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Antolamenduko zuzendari nagusiak 2020ko abenduaren 14an egindako txostena, Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Legearen 34. eta 35. artikuluen arabera. **ALDEKO TXOSTENA**, akats batzuk zuzendu eta zuzendutako dokumentuaren kopia bat bidaltzearen baldintzapean.*

*Txosten teknikoan azalduko dira ea zuzenketa hauek egin diren.*

*3.- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena, 2021eko martxoaren 4koa. **ALDEKO TXOSTENA**, proposatutako eraikuntzek edo objektu finkoek (zutoinak, antenak, kartelak, etab.) zortasun aerronautikoak ez urratzeko baldintzarekin.*

*4.- Defentsa Ministerioko Ondareko Zuzendariorde Nagusiaren 2021eko otsailaren 10eko txostena. **ALDEKO TXOSTENA**.*

*5.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2021eko urtarrilaren 26an egindako txostena. **ALDEKO TXOSTENA**.*

*6.- Ur Agentziak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostenak, 2021eko apirilaren 16an jaso zirenak. **ALDEKO TXOSTENAK**.*

*7.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren txostena, 2021eko urtarrilaren 20koa. **ALDEKO TXOSTENA**.*

## *V.- INGURUMEN-PROZEDURA*

*Oinarrizko legeri aplikagarria honako hau da:*

- *3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzkoa.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

- *21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.*
-
- *211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena.*
-
- *46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzen dituena.*

*Plan Berezi honek ingurumenean ondorio esanguratsuak ez dituelako,* ***ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua*** *egin zaio.*

*Jarraitutako prozedurak araudia betetzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko azaroaren 10eko Ebazpenaren bidez egindako ingurumen-adierazpen estrategikoaren formulazioarekin amaitu da. (2020ko azaroaren 26ko EHAA, 236. zk.).*

*Plan Bereziaren dokumentuak adierazpen horretan ezarritako baldintzak betetzen ditu, ingurumen-teknikariaren 2021eko maiatzaren 13ko txostenean zehazten den bezala.*

*Plana egikaritzean, bai urbanizazio-obrek bai eraikuntza-obrek adierazpen horretan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaile guztiak bete beharko dituzte eta, oro har, ingurumen teknikariak bere txostenean eskatutako baldintzak kontuan izan beharko dira.*

### *VI.- PLAN BEREZIA ONARTZEKO PROZEDURA*

*Oinarrizko legeri aplikagarria honako hau da:*

*Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua, Plana behin betiko onartzeko eskumena* ***osoko bilkurari*** *esleitzen diona.*

*Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikulua. Horren arabera, "Hirigintza-planak eta horien aldaketak eta berrikuspenak dagokion foru-aldundiko erregistroan gordailutzeko bidaliko dituzte udalek, artikulu honen 5. zenbakian*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

*aipatzen den argitalpena egin baino lehen. Erregistroak emandako hirigintza-planen dokumentuen kopiek haien edukia egiaztatzen dute legezko ondorio guztietarako ".*

*Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikulua, honako hau ezartzen duena: "Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da behin betiko onespen-erabakien eduki osoa, eta, gutxienez, hirigintza-arauena, bai eta lizentziak eteteko eta kentzeko erabakiena ere, aurreko zenbakietan aipatutako erregistroan dagokion hirigintza-plana gordailutu dela adierazita, erabaki horiek hartu dituen organoaren aginduz. Eta dagozkion hirigintza-planek aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioak ekoizteko eta Behin betiko onespenaren erabakia, gainera, dagokion lurralde historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da ".*

*Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluak.*

*46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.*

*Dekretu horren 7. artikuluan, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren behin betiko onespenerako publikotasuna arautzen da. 3. paragrafoan, Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren mende jarritako planen kasuan, argitalpenean, plan horien behin betiko onespenaren eduki osoa eta antolamendu-arauak biltzeaz gainera, erreferentzia egingo zaio ingurumen-txosten estrategikoa argitaratu den aldizkari ofizialari.*

*Horregatik guztiagatik, ikuspuntu juridikotik, "24.1 Iurramendi pasealekua" Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartzeko* ***ALDEKO TXOSTENA*** *egin dute. Gainontzean, txosten teknikoetan jasotakoak hartu beharko dira kontuan."*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

## V.- AZTERKETA TEKNIKOA

**- TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO EGITURAZKO ARAUDIA BETETZEA:**

Hiri antolamenduko plan berezi honek Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "24. IURRE" esparruari eragiten dio, zehazki, "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA"

azpiesparruari. Azpiesparru hau hiri-lurzoru bezala sailkatuta dago eta A.20 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Zona bezala kalifikatua dago. Proposatutako egiturazko hirigintza-parametroen azterketa hauxe da:

| | | TOLOSAKO HAPO | PLAN BEREZIA | BETETZEN DU (BAI/EZ) |
|---|---|---|---|---|
| **AZPIESPARRUAREN AZALERA (m2)** | | 61.372 | 61.369 (plano topografiko zehatzaren ondorio da neurketa hau) | **BAI** |
| **ERAIKIGARRITASUNA (m2(s))** | **SESTRA GAINEAN** | 14.040 | 14.040 | **BAI** |
| | **BOE** | 2.642 (%20) | 2.200 + berraloj.= 2.642 | **BAI** |
| | **TASATUAK** | 3.964 (%30) | 3.964 | **BAI** |
| | **LIBREAK** | 6.606 (%50) | 6.606 | **BAI** |
| | **BIZITEGI BERRIA** | 13.212 | 13.212 | **BAI** |
| | **ORDEZKATUA** | 828 | 828 | **BAI** |
| | **BIZITEGI BERRIA GUZTIRA (sestra gainean)** | 14.040 | 14.040 | **BAI** |
| | **TERTZIARIOA (aukeran)** | ez da zehazten (aukeran uzten da) | 268,60 (aukeran uzten du) | **BAI** |
| | **SESTRA AZPIAN** | 17. 580 | 10.971 | **BAI** |
| **KALIFIKAZIO GLOBALA** | | A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (12.003) | A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (12.603,02 m2) | **BAI (<%5)** |
| | | E.10 BIDE KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA (2.291) | E.10 BIDE KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA (2.229,14 m2) | **BAI (<%5)** |
| | | F.10 ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA (48.510 m2 / 47.078,00 m2) | F.10 ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA (46.536,86 m2) | **BAI (<%5)** |
| **HIRIGINTZA-SAILKAPENA** | | Hiri-lurzorua | Hiri-lurzorua | **BAI** |
| **ERAIKUNTZAREN SOLAIRU KOPURUA** | | Sestra gainean: IV + atikoa eta III + atikoa Sestra azpian: III | Sestra gainean: IV + atikoa Sestra azpian: II | **BAI** (aldatu dezake) |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

HAPOko kalifikazio orokorra aldatu egiten da zertxobait. Baina HAPOko 15.1 eta 15.2 artikuluei jarraikiz, Plan Orokorrean ezarritako kalifikazio globaleko aurreikuspenak birdoitzeak ez du aldaraziko Plan Orokorreko egiturazko antolamendua honakoak betetzen badira:

*“Oro har, doikuntza horien ondoriozko atxikipen edo afekzioek ezin izango dute eraginpean hartzen dituzten zonetako bakoitzaren jatorrizko azalera %5 baino gehiago handitu edo murriztu.*

*(...)*

*Edonola ere, doikuntza horien ondoriozko espazio libre orokorren azalera ezin izango da inola ere Plan Orokor honetan aurreikusitakoa baino txikiagoa izan.”*

Planari hasierako onespena eman zitzaionean jarritako baldintzetako bat kalifikazio Globala egokitzea izan zen HAPOko 15.1 eta 15.2 artikuluak betetzeko. **Egokitzapenak egin dira eta betetzen dira egiturazko hirigintza-parametro guztiak.**

**- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA ETA HIRIGINTZA-ESTANDARRAK BETETZEA:**

- **HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA:**

HAPOko hirigintza erregimen xehatua eta proposatutako antolamenduaren arteko konparaketa honako hau da:

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| | TOLOSAKO HAPO | | | | PLAN BEREZIA | | | | BETETZEN DU (BAI/EZ) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HIRI-LURZORUAREN KATEGORIZAZIOA** | Urbanizazio gabeziagatik finkatu gabeko hiri-lurzorua | | | | Urbanizazio gabeziagatik finkatu gabeko hiri-lurzorua | | | | **BAI** |
| **AZALERA (m2)** | a.20.1/ 24.1 | | 1.960 | 5.860 | a.20.1-2/ 24.1 | | 1.363,15 | 5.485,95 | **BAI** aldatu dezake |
| | | | | | a.20.3/ 24.1 | | 484,15 | | |
| | a.20.2/ 24.1 | | 3.900 | | a.20.4/ 24.1 | | 1.095,28 | | |
| | | | | | a.20.5/ 24.1 | | 743,40 | | |
| | | | | | a.20.6/ 24.1 | | 940,87 | | |
| | | | | | a.20.7/ 24.1 | | 859,08 | | |
| **ERAIKIGARRITASUNA (m2(s))** | a.20.1/ 24.1 | sg | 5.620 | sg:14.040 sp: 17.580 | a.20.1-2/ 24.1 (46 e) | sg | 3.964,00 | sg: 14.040 sp: 10.971,75 | **BAI** |
| | | | | | | sp | 2.726,29 | | |
| | | sp | 5.880 | | a.20.3/ 24.1 (15 e) | sg | 1.150,00 | | |
| | | | | | | sp | 968,15 | | |
| | a.20.2/ 24.1 | sg | 8.420 | | a.20.4/ 24.1 (34 e) | sg | 2.826,00 | | |
| | | | | | | sp | 2.190,56 | | |
| | | | | | a.20.5/ 24.1 (24 e) | sg | 2.000,00 | | |
| | | | | | | sp | 1.486,80 | | |
| | | sp | 11.700 | | a.20.6/ 24.1 (24 e) | sg | 2.100,00 | | |
| | | | | | | sp | 1.881,74 | | |
| | | | | | a.20.7/ 24.1 (24 e) | sg | 2.000,00 | | |
| | | | | | | sp | 1.718,16 | | |
| **ETXEBIZITZA KOPURUA** | Ez da zehazten | | | | | | | 167 | **BAI** |

**Iparraldetik parkera sartzeko proposatu den eskailera a.20.5 partzela pribatuaren parte bihurtu zen eta komunikazioko tokiko sistemen sarearen parte izendatzeko eskatu zen. Zuzendu dute.**

**Dena den, a.20.5 partzelaren azalera 743,40 m²-koa da. Eta dokumentuaren zenbait puntutan 831,90 m²-koa dela jasotzen da** (esaterako ordenantza erregulatzaileen 2.1.1.1. artikuluan eta Antolakuntza eta Exekuzioaren Kudeaketaren Artezpideen Azterketako 2. puntuan). **Akats hori zuzendu egin beharko da.**

**Bestalde, lursailen fitxetan honako akats hauek zuzendu beharko dira:**

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

- “superficie sótano” jartzen duen tokian “edificabilidad bajo rasante” jarri behar du.
- “superficie pisos” jartzen duen tokian “edificabilidad sobre rasante” jarri behar du.
- “sección” jartzen duen tokian “perfil” jarri behar du.
- “planta entresuelo” jartzen duen tokian “planta baja”
- Eraikinen gehieneko lerrokadurak adierazi beharko dira HAPOko irizpideei jarraituz.

Garajeetako sarrerei dagokienez, sestrapeko garaje pribatuetako sarrera partzela pribatuaren barruan sartu behar dela gogorarazten da.

Erabilera bateragarriei dagokienez, a.20.3 partzelako behe solairuan Plan Bereziaren memorian zabalik uzten da hirugarren sektoreko erabilera edota garaje/trastelekuarena. Egoki ikusten da hirugarren sektoreko erabileraren aukera jasotzea.

- **HIRIGINTZA ESTANDARRAK:**

2/2006 Legea eta 123/2012 Dekretuaren araberako Tokiko sistemen sareko zuzkiduratarako eta ekipamendutarako lursail erreserbarako gutxieneko estandarren justifikazioa aurkeztu da. 2018Ko Uztailean Arantza Ruiz de Velasco Artazak Udalaren enkarguz egindako Hirigintza-txostenean zehaztutako irizpideen arabera egin da bete beharreko tokiko hirigintza-estandarren kuantifikazioa. Hala ere eguneratu egin behar izan da oraingo datuen arabera:

BERDEGUNEETARAKO ETA ESPAZIO LIBREETARAKO AZALERAREN KALKULUA (eremuaren %15):
Hirigintza eraikigarritasuna izateko eskubidea duten finkak: 54.601,47 m²
F.10 Espazio libreen sistema orokorra: 46.536,86 m²
E.10 Bide komunikazioen sistema orokorra (jabetza pribatukoa dena eta lagatuko dena): 216 m²
54.601,47 m² - 46.536,86 m²- 216 m² = 7.848,61 m²
7.848,61 x 0,15 = 1.177,29 m²

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| | | GUTXIENEKOA (m2) | PROPOSATUTAKOA (m2) | BETETZEN DU (BAI/EZ) |
|---|---|---|---|---|
| **BERDEGUNEETARAKO ETA ESPAZIO LIBREETARAKO AZALERA (eremuaren %15)** | **eremuarearen azalera (m2)** | 1.177,29 | 660,30 / 659,79 | **EZ** |
| | 7.848,61 | | | |
| **TOKIKO BESTE ZUZKIDURA PUBLIKOETARAKO (5m2/25m2(s))** | **Sestra gaineko eraikigarritasuna** | 2.642,40 | 0 | **EZ** |
| | 13.212 | | | |
| **IBILGAILUEN APARKALEKUETARAKO (0,35m2/25m2(s))** | **Sestra gaineko etxebizitza eraikigarritasuna** | 195,56->196 | 228 | **BAI** |
| | 14.040 | | | |
| **ZUHAITZAK (1/100m2)** | **Sestra gaineko etxebizitza eraikigarritasuna** | 167 | 167 | **BAI** |
| | 14.040 | | | |

**Berdeguneetarako eta espazio libreetarako azalera ez da zuzena, 1.177, 29 baita eremuaren %15i dagokion azalera eta ez 1.094,45 m². Bestalde, eremuan sortzen den azalera planoen arabera 659,79 m²-koa da eta memorian, berriz, 660,30 m²-koa. <u>Akats hauek zuzendu egin beharko dira.</u>**

**Berdeguneetarako eta espazio libreetarako eta tokiko beste zuzkidura publikoetarako azalera guztia betetzea ezinezkoa denez, Hirigintza Estandarrei buruzko 123/2012 dekretuko 7.3 artikuluaren arabera, azalera horiei dagokien balio ekonomikoa kalkulatu eta diru-sarrera egin beharko da, dekretu honen 5. artikuluan xedatu bezala.**

**Birpartzelazio Proiektuan aipatutako balorazioak kuantifikatu eta justifikatu egin beharko dira. Gainera, balorazioa merkatuko azterketa batean oinarritu beharko da.**

**Gainontzean, proposatutako hirigintza erregimen xehatua, Plan Bereziaren mailan, egokia da. Urbanizatzeko Jarduketa Programako Urbanizazio Aurreproiektuan eta ondorengo Urbanizazio Proiektuan aztertu beharko dira zehatzago Iurramendi pasealekuko eta Martin Jose Iraola kaleko zehaztasunak (espaloien eta errepideen zabalerak, aparkalekuen kokapena, bidegorriaren trazatua eta soluzioa eta abar). Eta baita garajeetako sarrerak ere.**

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

- **<u>PROPOSATUTAKO APARKALEKU KOPURUA; URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA, ETA INGURUMENA, PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAK BETETZEA:</u>**

Bizitegirako lur zati eta bizitegi-eraikinetan, oin berriko bizitegi-eraikinen edota horietara lotutako lur zatien barruan baliokidetasun hauetarako aparkaleku-zuzkidura proiektatu eta gauzatu beharko da Udal Ordenantzen 98.1 artikuluaren arabera:

a) Babes ofizialeko etxebizitzak: 1 aparkaleku-plaza etxebizitzako

b) Udal-etxebizitza tasatuak: 1,3 aparkaleku-plaza etxebizitzako

c) Sustapen libreko etxebizitzak: 1,5 aparkaleku-plaza etxebizitzako

Bestalde, bai urbanizazio gabeziagatik edota urritasunagatik finkatu gabeko hiri-lurzoru gisa sailkatutako esparru eta azpiesparruetan, besteak beste, proiektatutako hiri-garapenen ondoriozko eraikin edota lur zatien barruan, baliokidetasun hauetako bizikletetarako aparkaleku-zuzkidura proiektatu eta gauzatu beharko da: etxebizitzei lotutako zuzkidurak: 0,25 plaza etxebizitzako edota 70 m²-ko (erabilgarriak).

**Proposatutako etxebizitza kopuruak kontuan hartuta autoentzako 228 aparkaleku eta bizikletentzako 42 aparkaleku jarriko direla jaso da. Partzelaz partzela jaso da kopuru zehatza.**

- **<u>PROPOSATUTAKO ORDENANTZA ARAUTZAILEEN AZTERKETA:</u>**

**Eskatutako zuzenketa egin da.**

- **<u>ERKIDEGOAK HIRIGINTZAKO EKINTZAN SORTUTAKO GAINBALIOETAN PARTE HARTZEA:</u>** Memoriako 3.6.4. puntuan aipatzen da udalari lagatu behar zaioan eraikigarritasun haztatuaren %15eko lagapena. Bideragarritasun ekonomiko-finantziarioari buruzko Azterlanean, berriz, ez da aipatzen % hori. **Honen inguruan txosten juridikora bideratzen da.** Dena den, Birpartzelazio Proiektuan aipatutako balorazioa kuantifikatu eta justifikatu egin beharko da. Gainera, balorazioa merkatuko azterketa batean oinarritu beharko da.

- **<u>OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN IRISGARRITASUNA:</u>** Bidegorria eta oinezkoen ardatza azpieremutik igarotzen dira HAPOko planoen arabera. Gainera, Tolosako Mugikortasun Jasangarriaren Planean ardatz hau, eremuaren ekialdetik doana, bai oinezkoentzat bai bizikletentzat, lehentasunezko ibilbidea bezala izendatzen da. Hala, proposatutako antolamenduan eta sistema orokorreko bide-sarean bidegorria eta oinezkoen sarea aurreikusi dira. Hala ere **Urbanizatzeko Jarduketa Programako Urbanizazio**

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**Aurreproiektuan eta ondorengo Urbanizazio Proiektuan aztertuko da soluzio egokia zein den eta bide horren trazatua eta ebaketa tipologia hoberena zein den.**

Tolosako Udaleko Lurralde Batzordeak, 2021eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido Zubiria eta Aitzol Garcia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

***LEHENENGOA.-*** 24.1 Iurramendi Pasealekua azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziaren hasierako onespeneko tramitean Construcciones Sukia Eraikuntzak, Slk aurkeztutako alegazioaren lehen puntua onartzea. Hau da, a.20.1/24.1 eta a.20.1/24.2 lurzatiei – Etxebizitza tasatukoei – eragiten dien antolamendu xehatua aldatzeko, lurzati bakar gisa elkartzeko eskaera onartzea.

***BIGARRENA.-*** 24.1 Iurramendi Pasealekua azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziaren hasierako onespeneko tramitean Construcciones Sukia Eraikuntzak, Slk aurkeztutako alegazioaren bigarren puntuari dagokionez, Plan Bereziaren hirigintza antolamenduarekin harremanik ez duenez, alegazio hori ez onartzea.

***HIRUGARRENA.-*** Behin betiko onespena ematea, "24. IURRE ESPARRUKO "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI"*18 (2021eko apirilaren 28an aurkeztutakoari)*, honako baldintza hauekin:

- 10 eguneko epean Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 2 ale aurkeztu beharko dira paperean eta CDan honako akats hauek zuzenduta:

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

**1.-** a.20.5 partzelaren azalera 743,40 m²-koa da. Eta dokumentuaren zenbait puntutan 831,90 m2koa dela jasotzen da (esaterako ordenantza erregulatzaileen 2.1.1.1. artikuluan eta Antolakuntza eta Exekuzioaren Kudeaketaren Artezpideen Azterketako 2. puntuan). **Akats hori zuzendu egin beharko da.**

**2.-** Hirigintza estandarrei dagokienez, berdeguneetarako eta espazio libreetarako azalera ez da zuzena, 1.177,29 m² baita eremuaren %15i dagokion azalera eta ez 1.094,45 m². Bestalde, eremuan sortzen den azalera planoen arabera 659,79 m²-koa da eta memorian, berriz, 660,30 m²-koa. **Kontraesan hori argitu eta akats horiek zuzendu egin beharko dira.**

**3.- Lursailen fitxetan honako akatsak zuzendu beharko dira:**

- “superficie sótano” jartzen duen tokian “edificabilidad bajo rasante” jarri behar du.
- “superficie pisos” jartzen duen tokian “edificabilidad sobre rasante” jarri behar du.
- “sección” jartzen duen tokian “perfil” jarri behar du.
- “planta entresuelo” jartzen duen tokian “planta baja”
- Eraikinen gehieneko lerrokadurak adierazi beharko dira HAPOko irizpideak jarraituz.

- Bestalde, kontuan hartu beharko da Berdeguneetarako eta espazio libreetarako eta tokiko beste zuzkidura publikoetarako azalera guztia eremuan betetzea ezinezkoa denez, Hirigintza Estandarrei buruzko 123/2012 dekretuko 7.3 artikuluaren arabera, azalera horiei dagokien balio ekonomikoa kalkulatu eta diru-sarrera egin beharko dela, dekretu honen 5. artikuluan xedatu bezala. Birpartzelazio Proiektuan aipatutako balorazioak kuantifikatu eta justifikatu egin beharko dira. Gainera, balorazioa merkatuko azterketa batean oinarritu beharko da.

- Urbanizazio eta Eraikuntza proiektuetan bi atal hauek justifikatu beharko dira.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

1- Eraikinen isolamenduaren ezaugarriek, etxebizitza barruan ondorengo soinu mailak gainditzen ez direla bermatu beharko dute:

| | Goizez (dB) | Arratsaldez (dB) | Gauez (dB) |
|---|---|---|---|
| Logelak | 40 | 40 | 35 |
| Besteak | 45 | 45 | 35 |

2- Obrak exekutatzen diren bitartean Ingurumen Txosten Estrategikoaren Lehen atalaren 3.2 puntuan ezartzen diren neurri zuzentzaileak beteko direla.

- Proposatutako eraikuntzek edo objektu finkoek (zutoinek, antenek, kartelek eta abar) zortasun aeronautikoak ez urratzeko baldintzak bete beharko dira.

***LAUGARRENA.-*** Adieraztea, azterketa akustikoan, 2 m-ko altueran kalitate akustikoaren helburuak gainditzen direla ikusirik, eraikinetarako eraikuntza-lizentzia eman aurretik, beharrezkoa izango dela Udalak eremu hori ZPAE (Zona de Protección Acústica Especial) bezala aitortzea.

***BOSGARRENA.-*** Aurreko erabakian aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan, argitaratu baino lehen.

***SEIGARRENA.-*** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea:

- Behin betiko onespenaren erabakia.
- Hirigintza-arauen eduki osoa.
- Plan Berezia Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso dela.

***ZAZPIGARRENA.-*** Behin betiko onartzeko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

***ZORTZIGARRENA.-*** Erabaki honen berri ematea interesdun guztiei.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose Mª Villanueva Telleria.

**Abstentzioa:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu** du behin betiko onespena ematea "24. Iurre esparruko "24.1Iurramendi pasealekua" azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.

**10."24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" HIRIGINTZA AZPIESPARRUARI BURUZKO HITZARMENA AZKENDUTZAT EMATEA.**

**AURREKARIAK**

2020ko abuztuaren 10ean, Construcciones Sukia Eraikuntzak SAk, bere izenean eta Fundación Benéfico Particular Miguel Muñoaren izenean, azpiesparruko lurzoruen % 90 inguru ordezkatuz, "24.1 Iurramendi pasealekua" azpiesparruaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia aurkeztu zuen, bere onespenerako.

Plan Bereziaren testuan, bai memorian, bai dokumentuan, aipamena egiten zaio Tolosako Udalaren eta Fundación Benéfico Particular Muñoa fundazioaren artean egindako hitzarmen urbanistikoari.

Hitzarmenaren espedientea aztertuta, ikus daiteke 2008ko irailaren 22an Tolosako Udalak eta Muñoa fundazioak plangintza-hitzarmen bat sinatu zutela "24.1 Iurramendi pasealekua" azpiesparruaren garapen urbanistikoa bideratzeko, honako izenburu honekin: "Convenio referido a terrenos propiedad de la Fundación Muñoa y al desarrollo urbanístico de los mismos en el contexto del nuevo plan general de ordenación urbana de Tolosa". Hitzarmen horrek ez zuen indarraldirik zehazten eta, 40/2015 Legeak legez ezarritako indarraldi-araubide mugatua kontuan izanik, iraungi egin behar zen.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Horrela, 2020ko urriaren 27an, honako erabaki hau hartu zuen Tokiko Gobernu batzarrak:

> *<<LEHENA. Prozedura abiaraztea plangintza-hitzarmen hau azkendutzat emateko: “Convenio referido a terrenos propiedad de la Fundación Muñoa y al desarrollo urbanístico de los mismos en el contexto del nuevo plan general de ordenación urbana de Tolosa”. 2008ko irailaren 22an sinatu zuten Tolosako Udalak eta Muñoa fundazioak hitzarmen hori, “24.1 Iurramendi pasealekua” azpiesparruaren garapen urbanistikoa bideratzeko.*
>
> *BIGARRENA. Hamabost eguneko entzunaldia irekitzea, interesdunak egoki irizten dituen dokumentu eta justifikazioak alegatzeko.*
>
> *HIRUGARRENA. Adieraztea hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz, Udalaren hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioen parte-hartzea hirigintza-eraikigarritasunaren % 15ekoa izango dela, urbanizazio kostuetatik libre.*
>
> *LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunari eta Hirigintza Sailari.>>*

Erabaki hori 2020ko azaroaren 9an jakinarazi zitzaion Fundazioari.

2020/11/25ean, Fundazioak alegazioak aurkeztu zituen prozeduran, hartutako erabakia ondoriorik gabe uzteko eskatzeko, ahalik eta laburren jaso ditugun arrazoibide juridiko hauetan oinarrituta:

- Hitzarmenaren izaera loteslea, 24.1 eremuaren hirigintza-fitxan jasota dagoelako.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

- Segurtasun juridikoaren eta bidezko konfiantzaren printzipioak urratzea.

- Indarraldia luzatzeko berariazko eskaera.

- Bere ez-betetzeen udal probetxu ez-legitimoa, ez baitu 40/2015 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak eskatzen duen egokitzapena egin.

- Hirigintza-hitzarmenen araubide juridikoa autonomia-erkidegoen eskumen esklusibokoa da, eta, beraz, 40/2015 Legea osagarria da.

- Udalari egotz dakiokeen atzerapena 24.1 azpieremua egikaritzean.

Alegazio horien inguruan, hirigintza gaietan aholkularia den Joseba Beristain abokatuari gaia aztertzeko txostena eskatu zitzaion. Egindako txostenean adierazitakoak ontzat ematen dira eta txosten honetan jasotzen dira. Bestalde, udal idazkariak bere adostasuna adierazi du txostenarekin, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

## AZTERKETA JURIDIKOA

**LEHENA.- Ohar labur batzuk 24.1 azpieremuaren hirigintza-hitzarmenaren izaera arautzaileari buruz.**

Fundazioak dioenez, hirigintza-hitzarmenean itundutako aurreikuspenak 24.1 azpiesparruaren arau partikularrean (hirigintza-fitxa) islatu ziren, eta horrek arau-izaera ematen dio, HAPOren arau orokorren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Adierazpen horri leundu bat eman behar zaio, funtsezko leundu bat eman ere.

Aldeek badakite hirigintza-hitzarmenaren funtsezko eginkizuna izan zela konprometitzea udal-plangintzaren zehaztapenetan txertatuko zirela 24.1 azpieremurako adostutako egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren aurreikuspenak. Horrela, hirigintza-araudia 2009/03/31ko 60. zenbakiko GAOn argitaratu ondoren, hitzarmenean

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

proposatutako 24.1 azpieremuaren araubide juridikoa HAPOn jasota geratu zen, obligatzeko bokazioarekin.

Ildo horretatik, beraz, ez zaio eragozpenik jartzen planean sartutako antolamendu-preskripzioei buruzko arau-printzipioaren deklarazioari.

Hori onartuta, erabat baztertu behar dugu hitzarmenaren gainerako estipulazioak 24.1 azpieremua arautzen duen hirigintza-fitxan sartuta daudela.

Hain zuzen ere, errealitate juridikoa ez da predikatu dena, eta hori ulertzeko nahikoa izango da arau partikularraren irakurketa (GAOren 10.593-10.601 orrialdea, 2009ko martxoaren 31koa, 60. zk.)

Fitxak hitzarmenari buruz jasotzen duen aipamen bakarra urbanizazio-obrekin lotuta dago (VII. epigrafea, "Egikaritzaren araubide espezifikoa", 3.4 atala, urbanizazio-kargak identifikatzeko, egikaritzeko eta ordaintzeko baldintzak); izan ere, ezartzen du obra horiek egikaritzeko honako irizpide hauei jarraituko zaiela: (i) urbanizatzeko jarduketa-programa; (II) birpartzelatze-proiektua; (iii) urbanizazio-proiektua; (iv) obra publikoaren proiektua, eta (v), azkenik, hitzarmenean ezarritakoa.

Horrenbestez, argi eta garbi egiaztatu behar dugu hitzarmenean 24.1 azpieremurako hitzartutako egiturazko antolamenduarekin eta antolamendu xehatuarekin zerikusirik ez duten zehaztapenak ez direla HAPOn nahitaez bete beharreko arau-elementuak.

**BIGARRENA.- Segurtasun juridikoaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak ez dira kaltetu.**

Jarraian, Fundazioak adierazi du udal ebazpenak urratu egiten duela segurtasun juridikoaren bermea, zeina ematen baita arau-aldaketa guztiekin batera kontraesanik gerta ez dadin. Urratzen duela, era berean, administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan nagusi izan behar duen konfiantza legitimoa, konfiantza horrek administrazio-kontratuetan funtsezko izaera duenean.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Horrela, argi eta garbi adierazten da lortutako itunek gaur egun indarrean jarraitu behar dutela.

Nolanahi ere, ez gatoz tesi horrekin bat, hura atzera botatzeko argudiorik ez da falta eta. Fundazioak aipatzen dituen arau-aldaketetako segurtasun juridikoari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak abenduaren 13ko 135/2018 epaian (RTC 2018/135) gai horri buruz ezarritako doktrinara jo behar dugu, honela baitio:

> *“La seguridad jurídica debe ser entendida desde un plano objetivo como la certeza sobre el ordenamiento jurídico aplicable y los intereses jurídicamente tutelados (STC 15/1.986, de 31 de enero (RTC 1986, 15), FJ 1); pero además, desde una perspectiva subjetiva como la expectativa razonablemente fundada, del ciudadano en cual ha de ser la actuación del poder en la aplicación del Derecho (STC 36/1.991, de 14 de febrero (RTC 1991, 36), FJ 5).”*

Testuinguru horretan, ez dirudi zaila denik ulertzea Estatuko legegileak (40/2015 Legea) argi eta garbi finkatzen duela hitzarmenek indarraldi jakin bat izan behar dutela, saihestearren, horrela ere ulertu dezakegu, haietan jasotzen diren itunak *sine die* finkatzea.

Honela jarraitzen du konstituzio-interpreteak:

> *“Sólo si el contenido o las omisiones de un texto normativo produjeran confusión o dudas en sus destinatarios que generan una incertidumbre razonablemente insuperable acerca de la conducta exigible para su cumplimiento o sobre la previsibilidad de sus efectos, podrían concluirse que la norma infringe el principio de seguridad jurídica (SSTC 150/1.990, de 4 octubre (RTC 1990, 150), FJ 8; 142/1993, de 23 de abril (RTC 1993, 142), FJ 4;212/1996, de 19 de diciembre (RTC 1996, 212), F J 15), (STC 120/2.012, de 4 dejunio (RTC 2012, 120), F J3).”*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Esandakoaren ildotik, ez dago arrazoirik ulertu edo uste izateko segurtasun juridikoa hautsi egiten denik lege-arauarekin, eta, horrekin, hirigintza-hitzarmenaren aurka egiten denik; hobeto ulertuko dugu hori, Konstituzio Auzitegiaren epai beraren pasarte hau irakurriz gero:

> *“No cabe admitir que se infringe el principio de seguridad jurídica cuando un texto normativo no se plantea y resuelve por sí mismo de modo explícito todos los problemas que puedan suscitar su aplicación (…). Cada norma singular no constituye un elemento aislado e incomunicado en el mundo del Derecho, sino que se integra en un ordenamiento jurídico determinado.”*

Konfiantza legitimoaren printzipioa ere ezin da agertoki honetara ekarri 40/2015 Legea urratzen duen estatus juridikoa finkatzearen aldeko faktore gisa. Fundazioaren planteamenduaren muinean ideia hau dago: hitzarmenezko ituna, borondateen akordio gisa, betetzea exiji daiteke itunaren edukiak halako petrifikazio juridiko bat duela eta, beraz, kontrako edozein lege-xedapenek ez dio hari kalterik egiten.

Fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioa, 40/2015 Legearen 3.1.e) artikuluan positibizatua:

> *“No puede invocarse para mantener en el ámbito del Derecho público situaciones contrarias al ordenamiento jurídico, o cuando del acto precedente resulta una contradicción con el fin o interés tutelado por una norma jurídica que, por su naturaleza, no es susceptible de amparar una conducta discrecional por la Administración que suponga el reconocimiento de unos derechos y/u obligaciones que dimanan de actos propios de la misma (STS 26/02/2.001, RC 5453/1995).”*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Printzipio horiek ezin dituzte desegonkortu ordenamendu juridikoa aplikatzeko arauak; halaxe gogorarazten digu Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 30eko 81/2015 Epaiak (RTC 2015/81):

> *<<Los principios de seguridad jurídica y confianza legítima ni permiten consagrar un pretendido derecho a la "congelación del ordenamiento jurídico existente" (SSTC 182/1.997, de 28 de octubre (RTC 1997, 182), FJ 13, y 183/2.014, de 6 de noviembre (RTC 2014, 183), FJ 3) ni, evidentemente, pueden impedir la introducción de modificaciones legislativas repentinas (STC 237/2012, de 13 de diciembre (RTC 2012, 237), FJ 6).>>*

Gaiaren azterketa ixten ari gara, baina gogora dezagun itxi aurretik, hain argi agertzen du-eta, konfiantza legitimoaren printzipioaren aplikazioari buruz Auzitegi Gorenaren 2009/07/23ko epaiak (RJ 2010/605) jasotzen duen adierazpena. Honela dio:

> *"El principio de confianza legítima permite esperar que el derecho adquirido se respete en los términos en que lo fue; pero no la inalterabilidad del régimen jurídico bajo el que aquel hubiera podido nacer."*

Hona ekarri ditugun konstituzio-arloko eta jurisprudentzia-arloko gako juridikoak ikusita, ezin da segurtasun juridikoa edo konfiantza legitimoa urratu izana defendatu.

**HIRUGARRENA.- Hirigintza-hitzarmenaren luzapena: ez dagokio.**

Hirugarren argudioan ─honek ere ez du konbentzitzen─ Udalari eskatzen dio 49.h) 2. artikuluan aurreikusitako luzapena adostu dezala. Honela dio artikulu horrek:

> *"En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes de convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un período de hasta 4 años adicionales o su extinción."*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Ez gatoz bat planteamenduarekin, izan ere, legegileak arautzen dituen balizko luzapenak hitzarmenaren indarraldian sustatzen dira, eta hori ez da 24.1 azpieremuaren kasua.

**LAUGARRENA.- Udalak hirigintza-hitzarmena 40/2015 Legera egokitzeko betebeharra ez du bete: ez dago horrelakorik.**

Aurkaratzeko asmoaren oinarri hau bat dator ideia honekin: Udalak, zortzigarren xedapen gehigarriaren aginduz, egokitu egin behar zuen hitzarmena 40/2015 Legearen aurreikuspenetara, 3 urteko epean, eta, ez zuenez hala egin, zigortu egin zuen Fundazioa. Defendatu dute, gainera, egokitu ez izana dela-eta ez dela ondorio juridikorik aurreikusten.

Gai hori aztertzeko, abiapuntutzat hartu behar da, atariko gogoeta gisa, xedapen gehigarriak lege-testuan duen funtzioa. Horretarako, gogora ekarriko ditugu Presidentzia Ministerioko Idazkariordetzaren 2005eko uztailaren 28ko Ebazpenean jasotako "araugintza-teknikaren jarraibideak": xedapen gehigarriei esleitu zieten artikuluetan arauak txertatzeko zeregina, zeinak, bestela, ezin baitira artikuluetan sartu xedapenen koherentzia eta barne-batasuna kaltetu gabe. Horien artean daude arau juridikoak sortzeko ez diren mandatu eta baimenak, zeinak modu murriztailean erabili behar baitira, eta, hala badagokio, zer epetan bete behar diren ere ezarri behar da.

Aurrekoaren ildotik, erraz ikus daiteke 1. paragrafoan Administrazioa behartzen dela hitzarmenak Legearen aurreikuspenetara egokitzera, hiru (3) urtetan. Baina, egia esan, legegileak erabilitako teknika ez da erabateko agindua, izan ere, aparteko salbuespen gisa epea bera kanpo uztea jasotzen baitu, paragrafo honetan honela xedatuta:

> *“No obstante, esta adaptación será automática en lo que se refiere al plazo de vigencia del convenio por aplicación directa de las reglas previstas en el artículo 49.h).1.º”*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Horren guztiaren ondorio bakarra da Udalak ez duela inolako ez-betetzerik egin, ahaztu gabe hitzarmenaren funtsezko preskripzioak (antolamendu-zehaztapenak) HAPOn jaso zirela formalizatu eta handik gutxira.

**BOSGARRENA.- 40/2015 Legearen osagarritasuna, 2/2006 Legeari dagokionez, hirigintzako hitzarmenen arloan, araugintzako eskumena eta espezialitatea direla-eta: ez dagokio.**

Fundazioaren bosgarren arrazoiak 40/2015 Legea bigarren mailan jartzen du, bi arrazoirengatik: lehena, 2/2006 Legea lehentasunez aplikatzekoa dela iritzita; izan ere, hirigintza-antolamendua autonomia-erkidegoen eskumen esklusiboko gaia da, eta horretarako Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 20ko 61/1997 Epaia aipatzen da. Bigarrena, araugintzako espezialitate-printzipioak hala eskatzen duelako, halako moldez non lege bereziak, aplikatzeko garaian, lehentasuna baitu lege orokorraren gainetik.

Ez dago eztabaidan lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arloko eskumen osoa (Autonomia Estatutuaren 10.31 artikulua), ezta lege berezi bat lege orokorraren gainetik lehentasunez aplikatzea ere.

Eztabaida-gaiak ezin gaitu proposamen horiekin distraitu, esaldi mugatuak eginda distraitu ere, alde batera utzi eta isilarazi egiten baitu autonomia-erkidego guztietan oinarrizko aplikazioa duen arau juridiko baten derrigortasuna, konstituzio-esparruan eskumenak urratzen ez dituen neurrian.

| 2010eko zordunak | 332.870,58 | 0,00 | 332.870,58 | 100% | 332.870,58 |
| 2011ko zordunak | 100.472,13 | 0,00 | 100.472,13 | 100% | 100.472,13 |
| 2012ko zordunak | 97.510,77 | 0,00 | 97.510,77 | 100% | 97.510,77 |
| 2013ko zordunak | 142.409,34 | 0,00 | 142.409,34 | 100% | 142.409,34 |
| 2014ko zordunak | 186.663,64 | 0,00 | 186.663,64 | 100% | 186.663,64 |
| 2015eko zordunak | 286.123,08 | 0,00 | 286.123,08 | 1,00 | 286.123,08 |
| **Batura 1994-2015:** | **1.533.182,57** | **0,00** | **1.533.182,57** | **100%** | **1.533.182,57** |
| 2016eko zordunak | 190.550,31 | 0,00 | 190.550,31 | 92,92% | 177.059,35 |
| 2017ko zordunak | 187.067,94 | 0,00 | 187.067,94 | 89,86% | 168.099,25 |
| 2018ko zordunak | 163.319,35 | 0,00 | 163.319,35 | 87,74% | 143.296,40 |
| 2019ko zordunak | 303.008,81 | 10.119,87 | 292.888,94 | 77,84% | 227.984,75 |
| 2020ko zordunak | 2.727.695,48 | 1.763.025,68 | 964.669,80 | 42,85% | 413.361,01 |
| **Batura 2016-2020:** | **3.571.641,89** | **1.773.145,55** | **1.798.496,34** | **62,82%** | **1.129.800,76** |
| **GUZTIRA:** | **5.104.824,46** | **1.773.145,55** | **3.331.678,91** | **79,93%** | **2.662.983,33** |

## 10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik bada, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

| **AURREKONTUAREN EMAITZA** | | | |
|---|---|---|---|
| KONTZEPTUAK | ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK | ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK | URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA |
| • Eragiketa korronteak | 25.293.448,74 | 20.847.374,16 | 4.446.074,58 |
| • Kapital-eragiketak | 172.407,94 | 1.292.929,01 | -1.120.521,07 |
| • Aktibo finantzarioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| • Pasibo finantzarioak | 0,00 | 953.829,89 | -953.829,89 |
| **1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1=a+b+c+d)** | **25.465.856,68** | **23.094.133,06** | **2.371.723,62** |
| KONTZEPTUAK | AINTZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA | AINTZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA | ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU-EMAITZA |
| a) Eragiketa korronteak | 411.159,60 | 460,12 | -410.699,48 |
| b) Kapital-eragiketak | 70.426,26 | -0,00 | -70.426,26 |
| c) Aktibo finantzarioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| d) Pasibo finantzarioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)** | **481.585,86** | **460,12** | **-481.125,74** |
| **3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)** | | | **1.890.597,88** |
| DOIKUNTZAK : | | | |
| a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak | | | 1.885.503,15 |
| b) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze negatiboak | | | 2.671,64 |
| c) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze positiboak | | | 0,00 |
| **4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)** | | | 1.888.174,79 |
| **AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)** | | | **3.778.772,67** |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

## 11.- DIRUZAINTZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzagarriko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzagarriko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatzen dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat, eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili beharko da, edota halakorik balitz, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu, era berean, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzagarriko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| DIRUZAINTZAKO GERAKINA | | | |
|---|---|---|---|
| **Kontu zbk.** | **Osagaiak** | | **Ekitaldia** |
| 57 | **1. (+) funts likidoak** | | **16.518.272,28** |
| | **2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak** | | **5.939.373,76** |
| 430,433,437,438 | -(+) urteko aurrekontukoak | 2.727.695,48 | |
| 431,434,439 | -(+) itxitako aurrekontutakoak | 2.377.128,98 | |
| 440,442,449,456,470, 471,472,548,550 | -(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak | 834.549,30 | |
| | **3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak** | | **4.316.133,85** |
| 400 | -(+) urteko aurrekontukoak | 2.326.309,44 | |
| 401 | -(+) itxitako aurrekontutakoak | 4.000,00 | |
| 165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561 | -(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak | 1.985.824,41 | |
| | **4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak** | | **0.00** |
| 554,559 | -(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak | 0,00 | |
| 555, 5581, 5585 | -(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak | 0,00 | |
| | **I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)** | | **18.141.512,19** |
| 4900,4901,4902,4903 | **II. Kobrantza zalantzagarriko saldoak** | | **2.662.983,33** |
| | **III. Gehiegizko finantzaketa lotua** | | **0.00** |
| | **IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)** | | **15.478.528,86** |

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina, guztira, 18.141.512,19 eurokoa izan da; horietatik:

- 2.662.983,33 euro, hau da, kobrantza zalantzagarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.

- Beste zati bat gehiegizko finantzaketa lotua da, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke. Aurten horrelakorik ez dago.

- 15.478.528,86 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta erabili ahal izango da kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako, bai gastu orokorretarako).

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

## 12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

| KONTZEPTUA | EURO |
|---|---|
| Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina | 15.873.664,66 |
| + Udalaren aurtengo ekitaldiko aurrekontu emaitza (doitu aurretik) | 1.890.597,88 |
| Doiketak | |
| + Iurreamendi Egoitzak sortutako saldo zorduna | 103.654,09 |
| + Tolosa Lotzen S.A.k sortutako saldo zorduna | 24.573,81 |
| + Tolosa Lantzen S.A.k sortutako saldo zorduna | 548.893,69 |
| - Inbertsio ondasunen erregularizazioak sortutako saldo hartzekoduna | -293.656,30 |
| - Erretengibel S.A.k sortutako saldo hartzekoduna | -6.215,64 |
| Doiketak Guztira | 377.249,65 |
| Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina | 18.141.512,19 |

## 13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira. 2020an, guztira, 12.230.558,14 euro dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz baliogabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jasotzen da zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

1- Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilekoan onartu badira.
2- Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
3- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreren menpeko beste kreditu batzuk.
4- Kapital eragiketetarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketetarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, taula honetan zehaztuta daude 2021eko ekitaldira txertatuko diren kreditu gerakinak. Aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Bi espediente desberdinetan txertatuko dira.

**2021eko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena. 1/2021**

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| b | 1 0200.227.07.931.00 2020 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. FINANTZA | 15.851,00 |
| b | 1 0300.211.01.920.30 2020 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. UDALETXEA | 7.149,57 |
| b | 1 0300.226.04.920.00 2020 | JURIDIKOAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA | 8.004,15 |
| b | 1 0300.227.11.920.20 2020 | INFORMATIKA. ZERBITZUAK. INFORMATIKA | 18.107,65 |
| b, d | 1 0300.626.01.920.20 2020 | INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK. | 5.965,94 |
| b | 1 0500.481.01.231.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. GIZARTE ZERBITZUAK | 83.109,45 |
| b | 1 0500.491.01.231.00 2020 | NAZIOARTEKO LAGUNTZA. GIZARTE ZERBITZUAK | 36.740,24 |
| b | 1 0600.226.99.151.10 2020 | BESTE HAINBAT GASTU. HIRIGINTZA | 5.324,00 |
| b | 1 0600.227.07.151.10 2020 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. HIRIGINTZA | 7.260,00 |
| b | 1 0700.210.01.153.20 2020 | AZPIEGITUREN MANTENIMENDUA. BIDE PUBLIKOA | 52.528,38 |
| b | 1 0700.210.01.165.00 2020 | AZPIEGITUREN MANTENIMENTUA ARGI PUBLIKOA | 2.121,74 |
| b | 1 0700.211.01.920.31 2020 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.ERAIKIN PUBLIKOAK | 3.380,74 |
| b | 1 0700.221.11.165.00 2020 | TRESNA ETA ERREMINTAK. ARGITERIA | 1.889,39 |
| b | 1 0700.227.07.165.00 2020 | AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK. ARGITERIA | 29.826,50 |
| b | 1 0700.227.07.171.00 2020 | AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK. LORATEGIAK | 968,00 |
| d | 1 0700.601.01.153.20 2020 | ERABILERA OROKORRERAKO URBANIZAZIOAK. | 266.318,01 |
| d | 1 0700.601.03.153.20 2020 | GERNIKAKO ARBOLAREN URBANIZAZIOA | 412.479,03 |
| d | 1 0700.601.12.153.20 2020 | LASKOAIN KALEA | 404.112,05 |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| d | 1 0700.622.02.920.31 2020 | ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK | 86.000,00 |
| b | 1 0700.625.01.920.31 2020 | ZENBAIT ERAIKINETAKO ALTZARIAK | 10.610,31 |
| d | 1 0700.625.99.153.40 2020 | EKIPAMENDUA. ZERBITZU OROKORRETAKO LANTALDEA | 25.650,00 |
| b, d | 1 0700.629.01.153.20 2020 | BESTELAKO INBERTSIOAK. BIDE PUBLIKOAK | 16.967,23 |
| d | 1 0700.643.01.153.00 2020 | AZTERKETA ETA PROIEKTUAK. OBRAK | 85.377,60 |
| b | 1 0800.481.01.334.10 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. KULTURA | 21.235,00 |
| b | 1 0800.481.01.337.20 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. GAZTERIA | 17.263,89 |
| b | 1 0800.481.01.338.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. JAIAK | 5.996,00 |
| b | 1 0900.221.99.323.20 2020 | BESTELAKO HORNIDURAK. SAMANIEGO IKASTETXEA | 1.387,89 |
| b | 1 0900.481.01.335.10 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. EUSKARA | 89.113,75 |
| b, d | 1 1000.622.02.342.40 2020 | INBERTSIOAK KIROLDEGIETAN | 5.747,50 |
| b | 1 1100.481.01.431.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. MERKATARITZA | 26.580,00 |
| b | 1 1100.481.01.431.10 2020 | DIRULAGUNTZAK. FERIA ETA AZOKAK | 1.250,00 |
| b | 1 1200.226.03.920.40 2020 | PUBLIZITATEA. KOMUNITATEA ETA GOBERNANTZA | 8.651,50 |
| b | 1 1300.481.01.172.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. INGURUMENA | 9.750,00 |
| a | 1 1400.227.04.231.60 2020 | KONTRATUAK. BERDINTASUNA | 18.089,50 |
| b | 1 1400.481.01.231.60 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARETAK. BERDINTASUNA | 1.308,69 |
| b, d | 1 0300.629.01.920.30 2020 | BESTELAKO INBERTSIOAK. UDALETXEA | 21.321,41 |
| a, d | 1 0600.680.01.151.10 2020 | LURSAILAK. HIRIGINTZA | 417.000,00 |
| d | 1 0900.622.02.323.20 2020 | SAMANIEGO. OBRAK | 200.000,00 |
| | | **TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA** | **2.430.436,11** |

**2021eko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena. 2/2021**

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| b | 1 0300.211.01.920.30 2020 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. UDALETXEA | 21.572,00 |
| b | 1 0300.227.11.920.20 2020 | INFORMATIKA ZERBITZUAK. INFORMATIKA | 23.930,47 |
| b | 1 0600.227.07.151.10 2020 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. HIRIGINTZA | 3.509,00 |
| b, d | 1 0600.642.01.151.10 2020 | PLANEAMENDUA HIRIGINTZA | 34.848,00 |
| b | 1 0700.210.01.171.00 2020 | AZPIEGITUREN MANTENIMENTUA PARKE-LORATEG | 6.682,83 |
| b | 1 0700.210.01.414.00 2020 | AZPIEGITUREN MANTENIMENTUA. LANDA GARAPEN | 2.527,09 |
| b | 1 0700.211.01.920.31 2020 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.ERAIKIN PUBLIK | 10.291,05 |
| b | 1 0700.221.99.171.00 2020 | BESTELAKO HORNIDURAK. PARKE ETA LORATEGIA | 1.288,41 |
| b | 1 0700.221.99.920.31 2020 | BESTELAKO HORNIDURAK. ERAIKIN PUBLIKOAK | 6.002,33 |
| b | 1 0700.226.03.163.00 2020 | PUBLIZITATEA. KALE GARBIKETA. | 17.841,45 |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| b | 1 0700.226.99.414.00 2020 | BESTE ZENBAIT GASTU LANDA GARAPEN | 17.666,00 |
| b | 1 0700.227.07.153.00 2020 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. OBRAK | 26.762,85 |
| b, d | 1 0700.601.01.153.20 2020 | ERABILERA OROKORRERAKO URBANIZAZIOAK. | 33.445,79 |
| b, d | 1 0700.601.01.171.00 2020 | AZPIEGITURA ETA URBANIZ. PARKE ETA LORATEG. | 8.784,28 |
| b, d | 1 0700.601.03.153.20 2020 | GERNIKAKO ARBOLAREN URBANIZAZIOA | 2.359,50 |
| b, d | 1 0700.601.12.153.20 2020 | LASKOAIN KALEA | 3.637,56 |
| d | 1 0700.623.05.165.00 2020 | MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK. ARGITERIA | 100.000,00 |
| b, d | 1 0700.625.01.920.31 2020 | ZENBAIT ERAIKINETAKO ALTZARIAK | 8.035,44 |
| d | 1 0700.643.01.153.00 2020 | AZTERKETA ETA PROIEKTUAK. OBRAK | 53.655,00 |
| b, d | 1 1000.622.02.342.20 2020 | FRONTOIAREN OBRA | 3.388,00 |
| b | 1 1100.221.99.431.10 2020 | BESTELAKO HORNIDURAK. FERIA ETA AZOKAK | 2.722,50 |
| b | 1 1100.226.06.430.00 2020 | JARD. SOZIO KULTURALAK. GARAPEN EKONOMIKOA | 2.800,00 |
| b | 1 1100.227.99.431.00 2020 | KONTRATUAK. MERKATARITZA | 17.532,90 |
| d | 1 1100.771.01.430.00 2020 | KAPITAL DIRULAGUNTZAK. GARAPEN EKONOM. | 3.000,00 |
| b | 1 1200.227.07.924.00 2020 | LAN TEKNIKOAK. PARTAIDETZA | 16.879,50 |
| b | 1 1300.226.08.172.00 2020 | INGURUMEN JARDUERAK. INGURUMENA | 20.887,17 |
| b | 1 1300.227.12.172.00 2020 | INGURUMEN KONTRATUAK. INGURUMENA | 26.612,21 |
| b | 1 1400.226.06.231.60 2020 | JARD. SOZIO-KULTURAK. BERDINTASUNA | 4.600,00 |
| b | 1 1300.480.01.172.00 2020 | DIRULAGUNTZAK FAMILIEI. INGURUMENA | 4.021,60 |
| d | 1 0700.622.02.920.31 2020 | ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK | 400.000,00 |
| d | 1 1400.622.02.231.61 2020 | EMAKUMEEN ETXEA | 280.000,00 |
| d | 1 0300.626.01.920.20 2020 | INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK. | 38.028,00 |
| d | 1 0700.629.01.920.31 2020 | BESTELAKO INBERTSIOAK. ERAIKIN PUBLIKOAK | 46.000,00 |
| d | 1 0300.644.01.920.20 2020 | APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 108.691,00 |
| d | 1 0600.680.01.151.10 2020 | LURSAILAK. HIRIGINTZA | 315.000,00 |
| **TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA** | | | **1.673.001,93** |

Kreditu txertaketaren finantziazioa hau da:

| | |
|---|---|
| - Sarrera finalistak | 0,00 |
| - Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina | 0,00 |
| - Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina | 4.103.438,04 |
| **Guztira** | **4.103.438,04** |

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Kreditu txertaketa egin ondoren, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 11.375.090,82 eurokoa da.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**12.<u>TOLOSAKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.</u>**

Udalbatzarrak, 2021eko urtarrilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Tolosako Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen erregelamenduari.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 49.b artikuluak xedatzen duena betez, onarpen hori informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar lanegunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia hedabide hauetan argitaratu da:

- Web orrian, 2021eko martxoaren 12tik apirilaren 27ra arte.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko martxoaren 10ean.
- Iragarkia taulan, 2021eko martxoaren 11tik apirilaren 27ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betiko onartutzat eman dute.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**13.<u>TOLOSAKO UDALEKO EUSKARAREN AHOLKU KONTSEILUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.</u>**

Udalbatzarrak, 2021eko urtarrilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko erregelamenduari.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 49.b artikuluak xedatzen duena betez, onarpen hori informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar lanegunez,

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia hedabide hauetan argitaratu da:

- Web orrian, 2020ko azaroaren 19an eta 2021eko otsailaren 24an.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko otsailaren 22an, 34. zenbakian.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betiko onartutzat eman dute.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**14.<u>AMNISTIA INTERNACIONALAREN MOZIOA, UDAL TALDEEK AURKEZTUA, MUNDU OSOAN COVID-19AREN AURKAKO TXERTOAK LORTZEKO.</u>**

Mozioak honela dio:

*“Azkenaldian gertatu den osasun publikoko larrialdi garrantzitsuena dugu gure aurrean. 2.6 milioi pertsona baino gehiagok galdu du bizitza mundu osoan. Mundu-ekonomiak bilioika dolar galdu ditzake immunizazio mailak ez badu azkar gora egiten mundu osoan. Nazioetako osasun sistemak erortzear daude, herrialde askotako ekonomiak zapalduta eta milioika pertsonen bizibidea arriskutan.*

*COVID-19aren aldaera berriek erakusten digute birusa toki guztietan menperatu arte, ez dugula irabaziko. Urtebete geroago, argi dago txertoen fabrikazioa eta erabilgarritasuna esponentzialki handitzea eta mundu mailan bidezko banaketa bermatzea premiazkoak direla. Honek, ezagutza, datuak, baliabideak eta jabego intelektuala zabalki elkarbanatzea eskatzen ditu, diru sarrera ertain eta txikia duten herrialdeekin batez ere.*

*Estatu Batuetako Administrazioak patenteen liberalizazioa bultzatzeko iragarkiari ongi etorria egiten diogu eta, uste dugu, orain Europar Batasunari dagokiola pausuok jarraitzea. Espainiak gauza interesgarriak agertu ditu, baina neurri zehatzetan bihurtu behar dira.*

*Zentzu berean azaldu dira Osasunaren Mundu Erakundeko Zuzendaria, munduko 100 gobernu baino gehiago, gizarte zibileko ehunka elkarte eta sindikatu. Beraiekin bat egin dugu Europako batzordeari eta EB-ari mailarik gorenean eztabaida*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

*dezaten eskatzeko, behin behineko salbuespenak bultzatu ditzaten Merkataritzarekin Lotutako Jabetza Intelektual eta Ezaguerari buruzko Akordioetan (ADIPC gaztelaniaz). Hegoafrikak eta Indiak proposatutako salbuespenak jabetza intelektuala eta ezaguera partekatzea erraztuko luke. Ekimen honekin jabetza intelektualak sortutako monopolioa ekidingo litzateke eta zuzenbideko ziurtasun eza deuseztatuko litzateke. Honek jarduteko askatasuna eskaintzen du eta ondorioz, erabilgarritasuna, eskuragarritasuna eta merketasuna handitu eta azkartzeko lankidetza ahalbidetuko litzateke.*
*Gure gizarteek garesti ordaindu dute jadanik pandemiarekin lotutako bizitza galera eta atzerapen ekonomikoa. Egoera hau txarrera doa egunetik egunera. Horretaz gain, diru publiko kopuru handia dago COVID-19aren inguruko teknologietan egiten ari diren aurrerakuntzak bultzatzen. Txertoa biztanleria guztira ahalik eta azkarren heltzeko elkarrekin lan egitea eta galarazten duten oztopo guztiak kentzea guztion intereserako da.*

*Horrengatik guztiagatik, Tolosako Udalbatzarrak Espainiako Gobernuari zuzendutako eskaera hau adostu du:*

*1. Mundu mailako lankidetza oztopoak kentzea, txertoen hedapena, behar besteko ekoizpena eta mundu guztian garaiz eta zuzentasunez banatzea berma daitezen. Hor sartu beharko litzateke beste estatuei laguntza teknikoa eta ekonomikoa eskaintzea, Osasunaren mundu erakundeak ezarritako zientzia eta COVID-19 baliabideak elkarbanatzeko mekanismoetan elkar laguntzea; hala nola, COVID-19-aren kontrako Tresnen Irispen Azeleradorea (ACT-A) eta honen oinarri den COVAX, herrialde arteko txertoen bidezko banaketarekin lotuta dagoena.*

*2. Bermatu, Jabetza intelektualeko zuzenbideak ezein herrialderi osasun eskubideak babestea ez diola ekiditen. Horretarako, behin behineko salbuespenak beharrezkoak dira Merkataritzarekin Lotutako Jabetza Intelektual eta Ezaguerari buruzko Akordioetan (ADIPC gaztelaniaz), COVID-19aren kontrako osasun-produktuen ekoizpenerako.*

*3. Udal akordio hau Espainiako Gobernuko Presidentziari, Autonomi Erkidegoko Osasun Kontseilaritzari eta ondorengo erakundeei: Amnistía Internacional, Médicos sin Fronteras eta Oxfam Intermón jakinaraziko zaie."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Amnistia Internacionalaren mozioa, mundu osoan covid-19aren aurkako txertoak lortzeko.

**Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Udalbatzak aho batez onartu ondoren, honako gai hauek aztertu dira:**

**15.MOZIOA: "TOLOSALDEKO OSPITALE PUBLIKOA" (EHBILDU).**

Mozioak honela dio:

*"80. hamarkadan, Tolosaldeko osasungintza beharrei erantzuteko, erantzukizunez, eskualdeko alkateak elkartu ziren. Orduko alkate mugimenduak zerbitzuen kontzertazioaren bidez, une hartako eskualdeko herritarren osasun beharrei erantzun zioten.*

*XXI. menderako bidean, eskualdeko herritarrok jasotzen genuen zerbitzuan gabeziak agertzen hasi ziren. Horri erantzunez, "Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko" mugimendua sortu zen, urteetan zehar agerian utziz eskualdeko osasun zerbitzuak ez zituela behar bezala erantzuten herritarron beharrak.*

*Urte guzti hauetan zehar, TOPArekin elkarlanean eta aldarrikapenekin bat eginez aritu dira, EH Bilduren alkateak eta baita zenbait herri txikitako alkate independente batzuk ere.*

*Bat bateko jarrera aldaketa eman zuen eskualdeko EAJ/PNVk 2019ko hauteskunde bezperatan. Ordurarte urte luzetan Tolosaldeakoa beste eskualdetako osasun zerbitzuaren parekoa zela defendatzen zuen arren, orduan ospitale publiko baten beharraren iritzia publiko egin zuen. Berri pozgarria izan zen, urte luzetan egindako borrokaren ondorioz, eskualdean falta zen eragileak bat egin baitzuen herritarron eskaerekin.*

*Erabaki aldaketa honekin, hitzetatik ekintzetara igarotzea dagokigu. Gure osasun eskualdea osatzen duten 31a herrietatik 25k abiatu duten alkate mugimenduarekin aurrera egitea dagokigu. Olatz Peon, Tolosako alkateak duela gutxi prentsara idatzitako eskutitzak jasotzen dituen hitzetatik abiatuta "...batu ditzagun indarrak eta jarrai dezagun lanean herritarren beharrei erantzuteko."*

*Hori horrela, honako erabaki hauek hartzen ditu Tolosako Udalbatzak:*

*1. Tolosako Udalak, Tolosako alkatearen bidez, Alkate Mugimenduan parte hartuko du, 80. hamarkadan egin zen bezala.*

*2. Tolosako Udalak egitea eskatu duen Tolosaldeko Ospitale berrirako kokalekuaren azterketaren ondorioak Alkate Mugimenduarekin partekatuko ditu.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

*3. Tolosako Udalak, osasun eskualdeko eragile ezberdinekin etorkizuneko osasun ereduaren hausnarketa egitea egoki ikusten du eta prozesu horretan, bertan parte hartuko du."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

**Aurkako botoak:**Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak **ez du onartu** gehiengoz Tolosaldeko ospitale publikoa izeneko mozioa.

**16. MOZIOA: "OSPITALE PUBLIKOAREN ALDEKO KONPROMISOA" (EAJ-PNV ETA PSE-PSOE).**

Mozioak honela dio:

*"Tolosak beti izan du erreferentziazko klinika bat: Asunción Klinika.*

*80. eta 90. hamarkadetan, Tolosaldeko alkateen eskariz orduko osasun egitura mantendu zen itun bidez. Itunpeko formula honek, denbora honetan, eskualdeko herritar orori EAEko beste edozein hiritarri eskainitako osasun arreta zerbitzuaren pareko zerbitzua hemen bertan, Tolosan, jaso ahal izatea bermatu dio, oinarri dituena: DOAKOTASUNA, UNIBERTSALTASUNA eta KALITATEA.*

*Egindako ibilbideak eta Osakidetzako antolaketa berriak ahalbideratu dute, orain, bere zerbitzuen koordinazio eta funtzionamendu integralerako Tolosaldeak ospitale publikoa izatea eta hortaz, horren aldeko apustua egin du Eusko Jaurlaritzak eta, baita udal gobernu talde honek ere.*

*Tolosarrei argi adierazi nahi diegu ospitale publikoarekiko dugun konpromisoa irmoa dela eta proiektu hau aurrera eramateko bermerik garbiena da, honetan eskumena duenak, Eusko Jaurlaritzak, proiektua gauzatuko duela adieraztea eta legealdirako programan jasota izatea. Hori da ospitale publikoa egiteko benetako bermea.*

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

*Norbere eskumenetik, eta elkarlanean, proiektua aurrera eramateko lanean dihardugu lehen egunetik. Udal honi dagokio, ospitale publikoa Tolosan kokatzeko zoruen azterketa egitea eta argi eta garbi diogu gure helburu eta lehentasuna dela ospitale berria Tolosan kokatzea, horixe baita, gure aburuz, aukerarik zentzuzkoena, Tolosak duelako biztanle kopururik handiena. Eskualdeburu izateagatik, beste hainbat alorretan ere ematen diogu zerbitzua Tolosaldeari, hezkuntzaren esparruan, gizarte zerbitzuetan, epaitegien, hedabideen, euskalduntzearen, nekazaritza-ganbaren eta genero-berdintasun esparruan, osasun publikoaren alorrean eta baita ere zerbitzu espezializatuetan: kiroldegia, suhiltzaileak, segurtasun zerbitzuak, etab.*

*Beraz, Tolosako Udalak ez du onartuko Tolosa ez den beste udalerri batean kokatzea osasun zerbitzuak, aukerak izanda ospitale berria bertan kokatzeko. Utzikeriaz jokatuko luke udal gobernu honek, aukera hori baliatuko ez balu Tolosako eta tolosaldeako herritar guztien mesedetan.*

*Eskualdeko ospitalea izanik, noski, Tolosaldeko beste herrietako biztanleek erraztasunez eta komunikazio-bide egokien bidez iristeko gunea aukeratu beharko da ospitalea ezartzeko. Udal gobernu honek horren alde egingo du, zalantzarik gabe.*

*Zoruen azterketaren lehen fasea amaituta, orain, 4 aukera ditugu mahai gainean. Bigarren fasea ere abiatu dugu behin betiko kokalekua zehazteko.*

*Behin kokapenaren gaia bideratuta, Jaurlaritzari dagokio osasun ereduaren programa garatzeko ardura, Osasun Sailak dituelako adituak eskualdeak behar dituen zerbitzuez jarduteko. Beraz, bakoitzak berea egin behar du, horretan baitu eskumena, eta horretan baita aditua.*

*Helburua argi dugu, jarraitu beharreko bidea ere bai eta lanean jarraituko dugu etorkizun hurbilean ospitale publikoa izan dezagun eskualdean, hori bai, Tolosan. Hori baita gure helburu eta lehentasuna, Tolosako eta tolosarren udal ordezkari gisa.*

*Gauzak horrela, honako konpromiso hauek hartzen ditu Udalbatza honek:*

*1. Tolosako Udalak tolosarren interesen defentsan eta beren beharrei erantzuteko lanean jarraituko du gainerako erakundeekin elkarlanean, norbere eskumenak errespetatuz.*

*2. Epe laburrean ospitale publikoaren kokapena zehazteko bigarren faseari amaiera emateko eta ondoren HAPOn beharrezkoak diren aldaketak egiteko konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak.*

*3. Tolosako Udalak behin betiko kokapenaren inguruko informazioa Eusko Jaurlaritzarekin, gainerako alderdi politikoekin eta herritarrekin partekatuko du."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose Mª Villanueva Telleria.

**Aurkako botoa:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu** du "O*spitale publikoaren aldeko konpromisoa"* izeneko mozioa".

**13.<u>GALDERAK ETA ESKAERAK.</u>**

Besterik gabe, 22:50ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA O.e. — IDAZKARIA

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

## ERANSKINA

## TOLOSAKO UDALEAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

**Tolosako Udalean Etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza.**

### ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen xedea da Tolosako herrian etxebizitzen alokairurako dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea, elkarrekiko lehiarik gabeko erregimenean eta Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez.

Azken helburutzat honako hauek dauzka:

Jarraian zehazten diren kolektiboei laguntza ekonomikoa ematea:
A) 18 eta 35 urte (azken hori barne) bitarteko adina duten gazteak.

B) Bananduak, dibortziatuak, desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

Zaintza partekatu kasuetan, ohiko etxebizitza ezkontide ohiek dagozkien zaintza epealdietan erabiliko balute, eta gainontzean beste etxebizitza bat alokatuko behar balute.

### I. XEDEA

**1.artikulua. Xedea.**

Laguntza hauen helburua da ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea –partzialki– honako biztanle-talde hauei: 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, bananduak edo dibortziatuak, desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak alokairu-erregimeneko etxebizitza errentan hartuta daukatenean edo horretarako konpromisoa hartzen dutenean, dagokion deialdia aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean.

**Ordenanza reguladora de las bases para la concesión de ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de tolosa.**

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente tiene por objeto la aprobación de las bases que regularan el otorgamiento de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Tolosa, en régimen de concurrencia no competitiva y en ejecución de lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.

Tiene por finalidad última:

Conceder una ayuda económica a los colectivos que a continuación se especifican:
A) Jóvenes de entre 18 y 35 años (inclusive).
B) Personas separadas, divorciadas, parejas de hecho extinguidas y familias monomarentales o monoparentales.

En caso de custodia compartida, cuando la vivienda habitual es compartida por los ex-cónyuges o pareja de hecho en los periodos en que deben ejercer dicha custodia, y para el resto deben alquilar un piso.

### I. OBJETO

**Artículo 1. Objeto.**

El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir –parcialmente- al pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de los siguientes colectivos de la población: jóvenes de entre 18 y 35 años, personas separadas o divorciadas, parejas de hecho extinguidas y familias monomarentales o monoparentales que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler o se comprometan a hacerlo en el plazo de un mes tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes de la

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

correspondiente convocatoria.

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentea izango da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).

Podrán ser beneficiarias aquellas personas que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con todas y cada una de ellas. En tal supuesto, será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta (alquiler) será computada de forma prorrateada entre cada una de las personas suscribientes del contrato.

Izatezko bikoteak edo ezkontideak bizikidetza-unitatetzat hartzen dira.

Las parejas de hecho o matrimonios se consideran una unidad convivencial.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza eta onuradunak hamabi hilabetean gutxienez ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

La subvención se tramitará y otorgará de conformidad a las condiciones establecidas en las presentes bases, y será destinada al pago del alquiler imputable a la persona beneficiaria durante un mínimo de 12 meses, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante dicho periodo de tiempo.

Araudi honetan jasotakoari jarraikiz, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, el correspondiente al garaje, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aún cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler, un valor fijo de 30 euros por garaje o contribuciones y arbitrios descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

**2. artikulua. Onuradunak**.

Oinarri hauetan arautako laguntzen onuradun izan ahal izango dira, laguntzetarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean eta diruz lagunduko den epealdian zehar, **baldintza hauek betetzen** dituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak:

**Artículo 2. Personas o unidades convivenciales beneficiarias.**

Podrán ser beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes Bases, las personas o unidades convivenciales que, a la fecha de publicación de las respectivas convocatorias en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y durante el periodo subvencionable, cumplan los siguientes requisitos específicos:

A) 18 eta 35 urte (azken hori barne) bitarteko adina duten gazteak; adin hori izan behar dute eskabideak aurkezteko epea

A) Tener una edad comprendida entre 18 y 35 años, en el momento de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

amaitzen denean.

B) Bananduak, dibortziatuak (epai judizial irmoarekin) desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

C) Eskatzaile edo bizikidetza unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan izan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentajeak ez badu % 50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxebizitza baten % 50etik gorako jabetza dutenek, etxebizitza hori erabili ezin badute, bananduta edo dibortziatuta daudenean, edo izatezko bikotea iraungitzen denean. Kasu horietan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.

D) Eskatzailearen bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiek dirulaguntzaren xede den etxebizitzan erroldatu beharko dute kontratua formalizatu ondoren, eta hori laguntza jaso aurretik egiaztatu beharko dute.

Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titular ez den pertsonarik badago etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

E) Errolda baldintza: bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonek Tolosako herrian erroldatua egon izana, gutxienez 3 urteko etenik gabeko antzinatasunarekin, eskaera aurkezten den unean, edo, behintzat, beste momentu batean, etenik gabe 5 urtez udalerrian erroldaturik egon izana eskaera aurkezteko unean.

F) Diru-sarrera baldintzak: bizikidetza

B) Personas separadas, divorciadas (con sentencia judicial en firme) o parejas de hecho extinguidas y familias monomarentales o monoparentales.

C) Será requisito que ninguna persona solicitante o miembro componente de la unidad convivencial solicitante posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50 % y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros.

Sin embargo, podrán solicitar las ayudas las personas propietarias de una vivienda en un porcentaje superior al 50 % y que no dispongan del uso de la misma en caso de separación o divorcio, o extinción de pareja de hecho, supuestos en el que habrá de acompañarse tanto la sentencia judicial como el convenio regulador, de forma que se acredite que el uso de la vivienda ha sido adjudicada al otro cónyuge o ex pareja.

D) Todas las personas que forman parte de la unidad convivencial del/de la solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato, cuestión que acreditarán con carácter previo a la percepción de la ayuda.

Asimismo, en caso de que haya personas no titulares de contrato empadronadas en la vivienda, el/la los/as titular/es del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.

E) Requisito de empadronamiento en el municipio de Tolosa: que las personas integrantes de la unidad convivencial consten estar empadronadas en el municipio de Tolosa, con una antigüedad mínima de 3 años de forma ininterrumpida en el momento de presentar la solicitud, o haber estado empadronadas en el municipio a lo largo de 5 años de forma ininterrumpida en otro momento.

F) Los límites de los ingresos de la unidad

ESKU1b599ee6-4306-4301-ae25-200e970f79b2

unitateko diru-sarreren mugak, honako hauek izango dira:

i. Urteko diru-sarrera gordinak gutxienez 3.000 €-koak izango dira.

ii. **Onuradun bakarra** baldin bada, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu **28.000 €-**ko kopurua.

iii. **Bi onuradun edo gehiago** izanez gero, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu **35.000 €-**ko kopurua.

Banandu, dibortziatuen eta iraungitako izatezko bikoteen kasuan, diru-sarreren zenbatekoa kalkulatzerakoan seme-alabengatiko mantenu pentsioa eta hipoteka kargei dagokien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie.

convivencial serán los siguientes:

a) Los ingresos brutos anuales serán como mínimo de 3.000 €.
b) Si la beneficiaria es **una persona**, los ingresos brutos anuales no pueden superar el importe de **28.000 €**.
c) Si las personas beneficiarias son **dos o más**, los ingresos brutos anuales no pueden superar el importe de **35.000 €.**

En el caso de personas separadas, divorciadas o parejas de hecho extinguidas para el cálculo del importe total de los ingresos, se restarán los importes correspondientes a la pensión por manutención de hijos/as así como el importe de las cuotas hipotecarias mensuales.

